


BAÑIOLA'TAR ABELIN

GOI ARGI

IRU EKITALDITAN ANTZERKIA

Bi posta t'ordi
— 2,50 —



BARRIOLA'tar ABELIN

GOI ARGI

IRU EKITALDITAN ANTZERKIA

DONOSTIYAN
Joaquin Baroja'ren Etxea
1935^{en} urtean

ANTZEZ-LAGUNAK

JOSEFINA, 50 urte
ISABEL, 29 “
MATILDE, 45 “
MARITXU, 25 “
NESKAMEA
ANTONIO, 55 urte
ENRIKE, 28 “
JULIAN, 35 “
FAUSTINO, 50 “
PEDRO, 30 “
ANTONTXO, 9 urteko mutikoa

EGILLEAK

Luzarreta'tar Sorne
Bikandi'tar Maritxu
Areitioaurtena'tar Karmele
Barriola'tar Maritxu
Eizagirre'tar Baxili
Beorlegi'tar Gergori
Barriola'tar Imanol
Arizmendi'tar Nemesi
Ugartetxea'tar Donata
Egilegor'tar Joxeba
Tolaretxipi'tar Iñaki

LENENGO EKITALDIA

Jaungela ondo apaindutako bat. Atzean, ezkerraldera ate aundi bat etxeko atze-aurreak ikusten dirala. Ezkerretan aurre aldean gelarako ate bat. Atzerago alderdi berian, idatz mai bat. Exeri-aulki apañak ta beste edergarri asko.

LENENGO AGERRALDIA

Antonio, Enrike ta Julian (irurak lasai eserita)

- ANTONIO ¿Ta bart?
- JULIAN Jator. Ango aparia, angu jolasak angu algarak ta angu... emakumeak.
- ANTONIO Emakumeak ere bai?
- JULIAN Asko ta ez nolanaikoak. Apal ondoren zoratu ginduzten beren algara, dantza, abesti ta jolasakin. Etzuen zure semeak asti askorik galdu.
- ENRIKE ¿Nik zer egin nikan ba?
- JULIAN Ezer ez. Danak gutxi itukan iretzat. Bati eldu, besteari bultza, onekin dantzatu, arrekin txu-txuan baztertu, ezer ez.
- ENRIKE Ageri askoan ta nabarmen asko ibilliak badituk ba. Emakume andaluzitar bat, Jazband jotzen zuen beltzarekin dantzatu etzan ba ¿ta nola eltzen zion!
- ANTONIO Odolak tink egiten. Odol beltzak.
- ENRIKE Ez dakit nik asabaren odolak, baño jan edanaren berotasunak bai. Nazkatzen nindun.
- JULIAN ¿Ikusi al ukan injeniero aleman'aren emaztea?
- ENRIKE ¿Nola ez? ¿Arek guregana etortzeko zeukan, gogo!, bañan etziokan senarrak altxatzen uzten.
- JULIAN ¿Ura emakumea! Begi urdin; masail zuri gorriak; ezpain irrigarri politak. Aingeru arpegi bat emakume soin eder batean ipiñita. Aren lepo... beso... bular...
- ENRIKE ¿Mutil, mutil!
- JULIAN Oraindik begi aurrean zekat ta ez dek arritzekoa, gau erdia berari begira igaro nikan ta.
- ANTONIO ¿Ta senarra?
- JULIAN Zenbat eta geiago begiratzen nion emazteari, orduan ta itxusi ta zakarragoa arkitzen nuen bere senarra. ¿Ura aberia!... ¿Ta kirten arrek alako emakumea eskuratu!
- ANTONIO ¿Zein dira?

JULIAN Ez dakit. Bañan jakin arte, ta emakume ori, al badet beñepin nereganatu arte, ez naiz geldituko. Shutz dubela izena badakit eta Hotel Kontinentalian daudela ere bai... gañerakoa jakingo det...

ANTONIO Beti berdin.

JULIAN ¿Bai al da gai au bañan atsegiñagorik? Emakumetzat itz egin, beren asmo ta naiak somatu, berakin jolastu, berakin zoratu... ¿zer pozgarriagorik?

ANTONIO Gañeaz, besterenak izan ezkerro.

JULIAN Neretzako, danak dira besterenak. Nererik ez bai det.

ENRIKE Ezta izango ere oraingo eran.

JULIAN Ez mutil, apaingarri garestia dek emakumea. Ez diat nik ortarako.

ANTONIO Ez dek beaz ik neskarik aberastuko.

JULIAN Ez detalako ik bezelako aitarik (*Antonio parrez*) ta ori apaizatarako yayua aizelarik (*Antonio'ri*). ¿Ikusi bazendu zein ederki eman zuen onek meza!

ANTONIO Apaldu ondoren.

JULIAN Bai. Au apaiz, Dionisio monagillo, Lukas organista, eta beste batzuek abeslari. ¿Ango zorokeria! Onek “Dominus vobiskun” aita santuak baño dotoriago esan ta...

ENRIKE Ik zer dakik aita santuak nola esaten duen.

JULIAN Ik baño dotoriago ez. “Dominus vobiskun”... ta danak “ekun espiritu”... ta, ¿zas! kopa bat koñak... barrena. (*Parrez danak*) Gero Kirie. Asten dira Kirie, kirie kantatzen, Dionisio zintzarriakin tilin, tilin jotzen, danak orpuakin lurra juaz ta eskuakin txalo egiñaz dantzatzten, ta ango zalaparta!... Gero organistak bakarrik, berak jo, ta berak abestu, nik Kartajenan entzun nuena (*piano jotzeko antzera egiñaz*).

A los pies de usted, Conchita
¿cómo sigue, cómo sigue su mamá?

ANTONIO ¿Elizan ori jotzen al dute?

ENRIKE Onen gezurrak.

JULIAN Ez jauna, egiak. Nik neronek entzun nikan.

ENRIKE Balitekek.

JULIAN ¿Ta Sevilla'ko Eliz nagusian nik entzun nuena?

ANTONIO Zer ote da?

JULIAN Aldare inguruan niokan ikusmiran, ta sermoi edo berriketaori bukatu zuenian esan zikan... “la gloria eterna como a todos os deseo”... ta kanonigo batek erantzun ziokan “Gracias compare” (*danok par*) Zer uste dezute ba emen bezelako ilumpekuak dirala ango Eliz gizonak? Emen dituk onelako

labe zomorruak. (*Agertzen da atzean Faustino patrikatik zerbait ateriaz ta neskameari emanaz*).

FAUSTINO
JULIAN

Tori, eman zaiozu ori ere. (*Neskamea ezkututzen da*)
Orain emen datorren au bezelakoak.

BIGARREN AGERRALDIA Lengoak eta Faustino

FAUSTINO
DANOK

Egun on jaunak.
Egun on.

ANTONIO
FAUSTINO

¿Zer ari itzan ematen?
Ni sartzearekin batean bi lekaimetxo etorri dituk eskera, ta aientzako eman zioat.

ANTONIO
FAUSTINO

Mutil ¿oraindik zorokeri oiekin abil?
¿Zorokeria? ¿Gaxuentzako biltzen dabiltzan emakume gaxo oieri ematea zorokeria?

ANTONIO
JULIAN

Eman nai badek emanzak, bañan alper oien bitartez ez.
Alperrak eta nabarrak. Bai dira, bai dira oietan ederrak.
Kosme'ri entzungo bazenio!

FAUSTINO

Kosme ta zu berdintsuak zerate ta gai orretan gezurrak sortzen yayuak.

ANTONIO

Lotsagarrizkoa dek orrela zomorroz jantzi ta etxerik etxe ibiltzea.

FAUSTINO

Ez ukek ori esango ire alaba balitz.

ANTONIO

Nere alaba? Lenago il, orrela ikusi baño.

FAUSTINO

Ago ixilik, burua galtzen dek eta, gauz abezaz itz egitean.

JULIAN

Praile ta monjaren granorik ez balitz geiago jardunik ez.

FAUSTINO

Ez dituzute ba orren erraz galduko. Jaungoikoaren gogokoak bai dira.

JULIAN

¿Zer Jaungoiko, ta zer sudur! Erri jakintsu ta aurrera jua naitzen guzietatik, bota dituzte ta.

FAUSTINO

Banaka batzuetatik, ta ez jakintsu ta aurreratutakoenetatik.
Abek pozik ateak irikitzen dizkate gizon ta emakume adoretu oieri.

JULIAN

Orain dala amar gizaldi agian ondo egongo ziran bañan orain...

FAUSTINO

Orduan ere orain bezela, ta gero izango diran bezela, Eleizgizon oien aurka, ta gorroto bizian, agertzen ziranak asko izango ziran; ez oietan dagolako errua, baizik beren bizikera garbi ta apalak gure nabarmenkeriak agertzen dizkigutelako.

Sinistuko genduke, ta ukatuagatik sinisten degu, siniste auekin batean, galeraziko ez balizkiguteke gure aragizko zaletasunak, dolozko kutiziak ta arrokerizko aundizkeriak.

JULIAN

Bai, gu gera oso... gaiztoak ta zuek oso... onak. (*Iseka*).

FAUSTINO

Gu ere ez onak, bañan gure okerrak eta bearrak ezagutzen dakigunak.

JULIAN

¿Zuek ezagutu? Egundaño ez. Esaidazu nik atzo ikusia ta zuk ere bai, an ziñan ta, ondo dagon.

FAUSTINO

Zer?

JULIAN

Lanik gabe, geldirik dauden langille talde baten aurretik zijuan *praile* gazte bat, bizkarretik zintzilik atze ta aurre janariz betetako pardel aundi bat zeramala. Ikusi zutenian, langille aietako batek esan zuen. “Begira zaiozute, itxura orretan gizona, gizon dana ibilli”. Ta beste batek sutu. “Guk aurrai aora eramateko ogi koskor bat ez, ta au dijua janariz beteta, bera ta beste asko, lanarik egin gabe, alperkerian dauden urdallak asetzera”.

ANTONIO

Ederki esana.

FAUSTINO

Gaizki esana.

JULIAN

¿Gaizki e? ¿Zer esan bear zion ba?

FAUSTINO

Ezer ez. Utzi gizonari bere bidean jarraitzen. Ura etzan iñortxorekin sartu, bere egipen neketsuetan zebillen.

JULIAN

Langille lanik gabe daudenen aurrean orrela juatea, zirikatzea da.

FAUSTINO

Tamalgarría da lan egin nai ta ez izatea, jateko lain ez otsazea, bañan geldirik dauden danak ¿langilleak al dira? Len ere baziran lanik gabe bizitzen ziranak, ta esaten zitzaien alperrak. Orain oieri, lanik egin gabe jarraitzen duten oieri berari, esaten zaie lanik gabeak, ta kupitzen ditugu, lengo alperrak berak izanagatik.

JULIAN

Nik ez nituen langille aiek ezagutu.

FAUSTINO

Nik ere ez, erdaldunak baiziran, atzerrikoak. Emengoak ez dira oraindik onela nabarmentzen.

ANTONIO

Nik Juliani ematen ziot arrazoia. Gaurko egunetan duenak eztik nola nai agertu bear ezduenen aurrean. Gorrotoa sortzen dik.

FAUSTINO

¿Zer diok? Ire iritzi ori aurrera eraman da, begira akiok zer gertatuko litzaken. Osasun gabeko matrail zurbil baten aurrean ezingo ukek jarri osasuntsu musu gorri bat, argal baten aurrean sendo ta bikain bat, motel baten aurrean pizkorra, trakets baten aurrean liraña, beartsu baten aurrean aberatsa, gorroto biziz begiratu gabe.

ENRIKE

Urrutitxo zuaz, Faustino.

ANTONIO Ta ain urruti.
 JULIAN Arrazoia ezin arkiturik. Ori beste gai bat da.
 FAUSTINO ¿Zer nai dezu? Gose dagonaren aurrean ezingo dala jarri
 asetzeko daukana esatea?

JULIAN Bai, praile ura bezela.
 FAUSTINO Bañan esaidazute. ¿Nork geigo gosea ireki aziko du: ta nork
 zuen iritzietan, gorrotua sortu aziko du: praile gizarajo arrek
 ezkutuan zermanakin, ala ostatu ta janetxeak erakusten
 dizkiguten janari ederrakin; ta salerosle guziak soma
 litzateken kutiziak gure begi aurrean jarriakin?

ANTONIO Erakutsi gabe ¿nola salduko dizkitek?
 FAUSTINO Erakutsi, ori dek, erakutsi ta ortan etziok gaitzik. Ez duenak
 alduenian jabetzeko asmo onak artu bear dizkik, ta bitartean
 iñor gorrotatu gabe, utzi dijoala bakoitza bere bidean, praile
 ura zijuan, ta juan zan bezela, agian langille arrotz aiek
 kutipuaz ta berazaz Jaunari arren egiñaz.

ANTONIO Obe zikan arren baño pardela iriki ta zermana eman bazien.
 FAUSTINO Etzikan berea ori egiteko. Bañan ik egin ezakek. ¿Nork
 galeraziko dik? Eman zak, arkituko dek nork artua, lanik ez
 duten edo egin nai ez duten oietan.

ANTONIO Ez diat nik, ordia, beti ezpañetan Jaungoikoa erabiltzen ta
 alkarganako maitasuna oiek bezela erakusten.

JULIAN Zer edo zerkin estali bear dutelako, beren alpertasuna.
 FAUSTINO ¡Nork nori! Zuk aieri alperra esan. Aste betean egiten duten
 lana zuk urte guzian egingo ez dezuta.

JULIAN Ezta egin nai ere, aien lana.
 FAUSTINO Gauza izan bear.

JULIAN Zure berriketak entzuteko ez; aspertu nazu.
 FAUSTINO Aspertu ez, mindu. Egia samiña izan...
 JULIAN ¿Samiñak zure kirtenkeriak? ba, ba, ba... Banua; ez det onen
 aurrian egon nai.

ANTONIO ¡Asarre ez e!
 JULIAN ¿Ez al ator?
 ENRIKE Oraindik ez. Eguerdi aldian agertuko nak zuen artean.

IRUGARREN AGERRALDIA

Antonio, Enrike ta Faustino

FAUSTINO Ezertarako ez diran txotxolo abek nere onetik ateratzen
 naute. Zer egiten du mutil onek?
 ANTONIO Ondo mutil alai da.

FAUSTINO Jolaserako bakarrik etorriak bagiña ludi onetara bai, bañan geiagotarako gaude. ¿Zertatik bizi da?

ENRIKE Ez dakit. Alde guzietan agertzen da, jai guzietan aurrena da, nik dakidala txindi askorik ez du, bañan beti sortzen du.

FAUSTINO Zeok emango diozute ta.

ENRIKE Ez ez, gizonaezkoak ez beñepin.

FAUSTINO Orduan okerrago. Ta onelakoak gizon zintzo ta bear bezelakoentzak erabiltzen dituzten jardunak.

ENRIKE Al baluke ba orrek, Eliza ta Elizako gauzak, azkar ondatuko lituke.

FAUSTINO Ta i orrekin. ¿Zergatik ibiltzen aiz? Ta barka nazazute galdeera. Edozeñek esango luke ni naizela etxe jabea.

ANTONIO Baitzake bezela. Aspaldian nere lagunik aundiena aiz ta... ¿Bakarriz al aiz?

FAUSTINO Ez, emaztea ta illobarekin.

ENRIKE ¿Maritxu ere bai? (*posturik*).

FAUSTINO Bai, barrenen dituk.

ENRIKE Banua, barkatu.

ANTONIO Ez uala onera zetoztik. (*Datozela somatuaz*).

LAUGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Josefina, Matilde ta Maritxu

(*Matilde ta Maritxu aurreratuko dira esku emanaz. Gero Maritxu Enrike'rekin juango da eskui aldera ta gañerakoak jarriko dira ezkerretan*).

MATILDE
eta MARITXU Egun on.

ANTONIO Egun on Matilde... Egun on, zerutxo.

MATILDE Arratsaldian Baionara dijoazela ta laguntzeko esatera etorri dira.

ANTONIO Ongi egingo dezu.

MARITXU ¿Atzo ezkerre ondo?

ENRIKE Txit gaizki orain arte. (*Txit gaizki, oso nabarmen*).

MARITXU ¿Ta orain?

ENRIKE Txit ondo. (*Txit ondo ere nabarmen*).

MARITXU Erraz sendatzeko gaitza zenduen nun bait.

ENRIKE Zu ikusi utsak sendatzen duena. (*Eseri biak*).

MATILDE Berrogeitamar urte omen ditu zure emazteak.

ANTONIO Ez dakit. Ez dizkit neri beñere esaten.

JOSEFINA ¿Galdetzen al diazu?

ANTONIO Emakumeari urteak galdetzea itsusia da.
JOSEFINA Galdetu gabe ere badakizkitzu zenbat ditudan. Nun zeorrek ezkutatu nai ez dituzun.

ANTONIO Bai, diruak bezela. Bankoan korrituan jartzeko.
FAUSTINO Urteak ez, bañan urtearen buruan dirua bai, erruz jarri dek korrituan. Gogoratzen al aiz aroztegi txiki ura jarri ukanian, bi txanponekin?

ANTONIO Bai, eorrek emanak. Ta amaika lan egiña nak, ta amaika burruka geroztik ere bai langilleakin.

FAUSTINO Aspertu arte.
ANTONIO Aspertu arte, arrazoi dek. Orregatik ez nikan nai nere semea ni bezela langilleakin ta lanakin burrukan ibiltzea, ta sendagille egin diat, iñortzaz beartu gabe ta bere lan utsarekin bizi dedin.

FAUSTINO Bai, orren sedagilletza ta batez, berdiñak dituk. Bearrik ez.
JOSEFINA ¿Bearrak? Gaizki oitua! Aitak lañezez dana betea dauka. Ara alaba: ondo oitua izan arren, eusten dio lanari. Bere senarrak illian ekartzen dion diru apurtxuarekin moldatu bear du ta.

MATILDE Ta iru aurrekin. Naiko lan badu.
ANTONIO Ez ezkontzia zuen. Gustoko aldapan, nekerik ez.
FAUSTINO Ondo senar ona dik da.
ANTONIO Bai, bai... (*Iseka abestuaz*) Jaungoikoa... lege zarra... gora... ardo zarra...

ENRIKE Nere aita asi da bere suiaren kaltez itz egiten.
MARITXU Ezin ikusi du. Ta gizon zintzoa ta bear bezelakoa dalarik. (*Altxatzen da Josefina, gero bezteak*)

JOSEFINA Ez dizutet erakutsi Andonitxok biali didan eskutitza.
ANTONIO Antontxok...
JOSEFINA Bai gizona bai... Antontxok. Atozte. (*Danok juanaz*).
MATILDE ¿Berdin ez da ba?
ANTONIO Nere etxean ez da izen txororik. Anton edo Antontxo; ez Andoni.

BOSTGARREN AGERRALDIA

Enrike ta Maritxu

ENRIKE Poz aundi bat artzen det zure ondoan egon utsarekin.
MARITXU ¿Beste geiago gabe?
ENRIKE Ikusi utsarekin.
MARITXU Ez dakit nola etorri naizen. Ez nuen asmorik, bañan entzun diodanian izebari zure amarengana zetorrela, utzi esku artean

neukan lana, jantzi bereala, ta emen naukazu orain, Jaungoikoari eskerrak.

ENRIKE
MARITXU

Jaungoikoari ez, zure izebari.
Zu beti berdin. Jaungoikoarik ez balitz bezela, ta gure asmo, egite ta izate guziak beragandik sortuak ez balira bezela.

ENRIKE
MARITXU
ENRIKE

Esan det, izebari eskerrak, gertaera bat gogoratuaz.
Izango da...
Entzun. Mendi aldats batean zijuan gizon bat, ta alako batean oñak irrist egin ta jausi da mendian bera. Etzeukan zeri eutsirik, non gelditurik, ¡galdua zan! amilka zijuan. Bañan larri artan somatu zuen urratzen ziola soin guzia sasi batek. Miñ artu arren eutsi dio sendo ta an gelditu da. Laguntzera etorri zaion batek dio: ¡Jaungoikoari eskerrak gaur bizi zera! ta gizaxo arek esku odolduari begiratuaz dio: Jaungoikoari ez... sasi ari.

MARITXU

Jaungoikoak argitu, Jaungoikoak asmoa ekarri ta Jaungoikoak indarrak eman ez bazizkan etzan sasiari elduta geldituko. Asiera, izaera ta bukaera dana beregandik bai datorkigu.

ENRIKE

Gaur eskertu bearrean nago orduan. Zuri ere onera etortzeko asmoa berak sortuko zizulako.

MARITXU
ENRIKE

Egia.
Ez ordea nik ikusten ez dan Jaungoikoaren bearrik izan... Nere Jaungoiko, zeru, erregin ta jabea zu zeralako (*limurki*)

MARITXU

Etzazula ni bezelako emakume batengatik orrelako zorokerikik esan.

ENRIKE

¿Berriro entzun nai dituzu? (*txit limurki*).

MARITXU

Maitasunak itxutu egiten duela diote ta ala da.

ENRIKE

Itxu banego ez nituke edertasun oiek nere inguruan ikusiko.

MARITXU

Ez dituzu ikusten.

ENRIKE

Bañan bai somatzen.

MARITXU

Itxu-itxuan; ametsetan.

ENRIKE

¡Atsegiñak amets gozo abek, ene maitea!

MARITXU

¡Maitea!... ¿Maite al nazu?

ENRIKE

Nola ez?

MARITXU

Maite al nazu maitasun egizkorraz?

ENRIKE

Baietz uste det.

MARITXU

¿Maitasuna zer da?

ENRIKE

Gaitza itzez agertzen, bañan erreza barrenen nabaitzen... Batzuek gizakunde zaletasun bat besterik ez dala diote.

MARITXU

Gizon ta emakumen alkarganako zaletasuna besterik ez? Orduan aberetxoen antzekoak gera.

ENRIKE Bai, ta ez. Zaletasun orren gain gizonak asmo altxiagoak, ta iraunkorragoak jartzen ditulako.

MARITXU ¿Beti?

ENRIKE Geienetan. Maitasun ori sendotzeko bai dira gañera ondasun geiago.

MARITXU Ez beti agertzen diranak.

ENRIKE Zeronek zenion bezela itxu xamar garai oietan ibiltzen geralako.

MARITXU Ta elkar ezagutzen saiatzen ez geralako. Pozgiro ibiltzeagatik ez degu atsegin ez dan gauzarik ikusi nai.

ENRIKE Egia. Ala ere ontasun asko erraz ikusten dira, ta zoriontsu izaten laguntzen dute; bat da, osasuna.

MARITXU Ez da iraunkorra.

ENRIKE Edertasuna.

MARITXU Gutxiago.

ENRIKE Aberastasuna.

MARITXU Askotan kaltegarria. Bear ez diran maitasunak ta griña txarrak erraztutzen ditulako.

ENRIKE ¿Nola sortu orduan egizko maitasuna?

MARITXU Begira. Nik bein irakurri nuen maitatzea zer zan, ta oso-osorik bete ninduen. Maitatzea da opatzea bateri nai ditun ontasun guziak, ta alegiñak egitea ontasun oiek iritxi ditzan.

ENRIKE ¿Nola, nola? ez tet ongi ulertu.

MARITXU Erraza da. Ni zoriontsu izateko nai ditudan ontasun guziak, zuk neri opatzia... ta...

ENRIKE Opatzen dizkitzudan bezela.

MARITXU ... itxoin... ta zuk lan ta alegiñ guziak egin bear dituzu, nik oso osorik ontasun oiek izan artean.

ENRIKE Bigarren zati orrek lanak baditu.

MARITXU Agian aundiak, bañan bigarren au gabe aurrenekoa ezer ez da.

¿Zer ez besteri opa, eragozpenak, lanak eta kalteak ekartzen ezpadizkigu? Bañan lan abek gabe, maitasunarik ez da agertzen. Askotan garratza izango dala, ziñesten det; bañan maitasunak ez al ditu ba garratasun oiek gozatuko? Erderazko esaera batek, ongi agertzen du ori “Obras son amores y no buenas razones”. Ez ezpain ertzeko agindu errazak, baizik lanak eta nekeak.

ENRIKE Onela maite banazu ¿zoriontsu ni!

MARITXU Etzaitut oraindik onela maite, bañan onela naiko nuke nik maite... ta ni maitatzea... ¿Ta zuk?

ENRIKE Entzunaz, zoratuta naukazu, ta eztakit zer esan, bañan geitxo ez ote da eskatzen dezuna?

MARITXU Al dana baño geigo ez.
 ENRIKE Bañan egin leiken guzia bai, naiz bere gogoko lana izan ez.
 MARITXU Maite badu, bestearen gogoa beria izango da.
 ENRIKE ¿Ta bere kalterako balitz?
 MARITXU Ez litzake orduan ontasuna izango. Ontasuna irixteko alegindu bear da, ez kalterako dana.
 ENRIKE ¿Nork daki, askotan, ontasuna ta kaltea non dauden?
 MARITXU Ondo alkartzen diraden bik obeko asma lezateke.
 ENRIKE Nik beñepin, laguntza bear ko det, ez banaiz gauza bakarrik ezer egiteko.
 MARITXU ¡Ta orrenbeste urteekin ori diozu! Mutil gazteari begiratzea, etzait beñere egokia iruditu. Gizon egiñakin asitzia, beldurtzen nintzan, ta zu mall erdian zaudena itz egingo dezu mutiko baten antzera, ta zerorren buruaren jabe ez baziña bezela?
 ENRIKE Ez naiz ezertarako gauza. Neria, ala gurasoena, ez dakit norena dan errua, bañan ala da.
 MARITXU Ez dezazula ori esan. Gizon baten ezpañetan gaizki daude itz oiek. Danok gera gauza, gogoa jarri bear, bañan gogo sendoa.
 ENRIKE Maitasun sutsuren batek berotzen ez banua.
 MARITXU Garaiz zaude ba.

SEIGARREN AGERRALDIA

Lenguak eta Isabel

ISABEL (*Sartuko da bizi*) Asketsi, galera zterta natorrela badakit, bañan presa det, etxeratu bearra naiz ta bereala, aurtxoak jaztera.
 MARITXU Aurrera Isabel, ez dizugu zer barkaturik. Txorakeri batzuek esaten ari giñan.
 ISABEL ¡Biyak gai egon!
 ENRIKE Agian onek jakingo du. Galde egiozu maitasuna zer dan.
 ISABEL ¿Maitasuna? Ez nuke jakingo esaten, bañan nik dakidana da, nere senar ta aurtxoen onagatik, arrastaka ibilliko nintzakela.
 MARITXU ¿Nekeak ikaratu gabe?
 ISABEL Nekeak eta lanak bizkar gañean artuta.
 MARITXU (*Enrikeri*) ¡Egizko maitasuna!
 ISABEL Enrike, zure gana nator, zure laguntza bear det aita gure alde jartzeko. (*Maritxu altxa ta juanaz*) nere gatik geldi zaitez, zure aurrean berdin esango diot.
 MARITXU Ez, sendiko berririk ez det nik zer jakiñik, barrura nua, an nabaitzen det zure mutiltxo.

ISABEL Bai Andoni'rekin naiz.

ENRIKE Anton, badakizu aita asarretzen dala Andoni esanta.

ISABEL Andoni ta Kepa orrentzako sugariak dira.

ENRIKE ¿Zer dakartzu?

ISABEL Nere senarrak irabazpide on bat iristeko egokiera dauka. Badakizu gizon ona ta langillea dala, ta alakotzat daukate dagon etxean, bañan illeroko alogera laburra da, ta nik dakit zer zintzo ibilli bear degun, zorrik gabe aurrera ateratzeko.

ENRIKE ¿Zergatik ez diozu aitari dirua eskatzen?

ISABEL Badakizu nereganako borondaterik ez duela ta gañera ez luke nere senarrak txindik artuko. Aurrak jazteko amak ematen dizkidan txanpon batzuek artzen ditudalako ere, asarretzen da.

Aberatsen umeak bezela jazten omen ditugu ta ez berak, lanetik irabazten duen langilleen antzera.

ENRIKE Ez det zure senarra ulertzen. Nik eskatzen diot ba, ta eman bearke ¿zer egingo nuke bestela?

ISABEL Bai, kutizi guztiak zuretzako dira ta zuk nai dezuna bakarrik egiten du aitak; orregatik zuregana, gaur nator. Laister da emen nere senarra, ta etorri baño lenago aitari itz egin bear diozu ta gure alde jarri. ¿Badakizu Jauregi'ren etxea, burni tratuan ibiltzen dana?

ENRIKE Bai. Ta uste det irabazi ederrak egiten ditula.

ISABEL Aundiak. Urte gutxitan aberastu da, ta ain aberats egon bear du nun dana utzitzeko asmoa artu duen. Bertako arazo duen batek nere senarrari esan dio, ta nola eskatzen dituen berrogei milla duro.

ENRIKE ¿Ta ez al dute bertan daudenak artu nai?

ISABEL Pozik, bañan diru guzia erabat eskatzen du ta gizajoak ez daukate; orregatik nere senarrari itz egin diote ta nere senarrak orain diru ori bear. Txit irabazbide ona da, ta guretzat gañera zerutik balertorke bezela. Nere senarrak egingo du lana, gau ta egun, bear bada, ta bereala biurtuko dizka aitari orain aurreratuko dizkigun diru oiek. ¿Zer diozu?

ENRIKE Neretzako artuko nukela nik zure senarrak daukan lanerako gogoia.

ISABEL ¿Zergatik etzera saiatzen?

ENRIKE ¿Gauza izango ote nintzake?

ISABEL Enrike, jarri zaitez nere senarrarekin, artzazute biok Jauregi'ren etxea.

ENRIKE Ez da gaizki esana, bañan lana egin bear orrek ikara sartzen dit.

ISABEL Nereak egingo du.

ENRIKE Eztet nai. Zure senarrarentzat eskatuko diot.
ISABEL ¿Iritxiko dezu?
ENRIKE Baietz uste det.
ISABEL (*Bi eskuekin elduaz*) Eskarrik asko. Senarrarengana nua jau poza eman bear diot!
ENRIKE (*Irteten ikuziaz*) Anai arrebak. ¿Guraso beren semeak! ¿ta nork esan? Ori dan bizia ta saiatua ta ni naizen epela ta ezer eza.

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Enrike, Isabel, Antotxu ta Antonio

ISABEL (*Atzetik aurrera bialduaz*) Antotxu, emaiok osabari muxu bat.
ENRIKE Ator, Antotxu.
ANTONTXU Egun on osaba.
ENRIKE (*Musutzen du, ta gero patrikatik pesta bat atera ta emanaz*) To, gorde zak ixilik.
ISABEL Ez gero ezer eman. Gaizki oitzen ari zerata.
ENRIKE Ezer eman al diot ba nik? ¿Ez dek egia nik ez diatela ezer eman? (*Antontxuk eskuiko beatsetan agerian pesta daukala ezetz esaten du ezkerreko eskuarekin*) ... gorde zak ba mutil...
ISABEL Berriz ere esango du orrek osaba ona dala.
ENRIKE Dan bezela...
ANTONIO Bai, eman akiok, ezтик nererik artuko, gaur ere erneatu niok. Jarri ezak ba Jesuiten *martxa* alu ori kantatzen Iñaxio... gure...
ISABEL ¿Orain ere onela al gera?
ANTONIO Bai, ba, sartu etxean ta amonak esan diolako asiko den ba Iñaxio... gure...
ISABEL ¿Zer nai dezu ba aur batek abestutzea?
ANTONIO Toreruen *martxa* nai baden, ori ez.
ISABEL (*Aurrari esku eman ta ateriaz*) Guazen, guazen. Enrike, bakarrik zaudete, esan orain. Agur aita.

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Enrike ta Antonio

ENRIKE Aita, presarik ez badezu eseri zaitea. Itz egin nai dizut.
ANTONIO ¿Emakume gaiaz?
ENRIKE Ez lan gaiaz.

ANTONIO Lan kontu ta ik, arritzekoa dek; entzun zagan.

ENRIKE ¿Ezagutzen al dezu Jauregi'ren etxea, burni tratuan aritzen danarena?

ANTONIO Etxea ta bera. Ori Elorriokua dek berez. Faustino'ren oso laguna.

ENRIKE Ba, utzi egin nai du. Aberastu da nonbait.

ANTONIO Nor artua izango dek. Aberatsa zioke bai, seme alabarik ez dik, emaztea gaxo xamarra, ta alde egin naiko dik.

ENRIKE Baliteke. Berrogei milla duroan saldu nai du.

ANTONIO (*Parrez*). ¿Ta ik artu nai al dek?

ENRIKE Nik ez, Pedro'k.

ANTONIO (*Altxiaz*) Arentzako badek alperrik ari aiz.

ENRIKE ¿Zergatik?

ANTONIO Arentzako ardiapat emango ez detalako. Alaba eramatea naikoa ez duela orain nere diruak nai al dizkik?

ENRIKE ¿Nola artuko du ba bestela?

ANTONIO Nai duen bezela, nere diruakin ez.

ENRIKE Begira, aita, utzi zagan orain alde batera dirua, ta ikusi zagan egoki dan ala ez artzia.

ANTONIO Ik gauza oietan itzik ez dakik.

ENRIKE Askorik ez egia, bañan...

ANTONIO Alperrik ari aiz, nik etziyuat nere suiari ezer emango.

ENRIKE Betikua... ta neri bai... dana... ta nere arreberen senarrari ezer ez.

ANTONIO I aiz nere izena daramana, nere ondorengoa.

ENRIKE Arrek ere nere izena bera darama.

ANTONIO Ago ixillik, alperrik ari aiz.

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Faustino, Matilde, Josefina ta bukaeran Maritxu

FAUSTINO Antonio, agur, bagiatzik.

ANTONIO Ni ere baniak, itxoin zak (*Ezkerretan dagon atetik juanaz*)

ENRIKE Aita entzun bear didazu. (*bere atzetik sartuaz*)

JOSEFINA Bitartean eseri.

FAUSTINO ¿Berriz? Gaur ez gera etxeratuko.

MATILDE Etxeratuzian maia gertu egongo da, ez larritu.

FAUSTINO Badakizu ez naizela egundano otorduz larritzen.

JOSEFINA Nere senarrari mai ona gustatzen zaio ba.

FAUSTINO Nori ez. Josefina zoriontsuak zerate. Zure senarrak Elizanburu Sarako Koblakari ospetsuarekin esan lezake:

“Badut andrea, badut semea,
alaba ere badut nik,
osasun ona batetik,
ontasun aski bestetik,
zer naiago det besterik.”

JOSEFINA
MATILDE
JOSEFINA

Bai... bai... ala da... (*oso oldozkor*)
Badiruri ezpetan esaten dezula.
¿Bai al da, ludi onetan, zorientsu oso-osorik danik? ¿Nork kez karen bat ez du?

MATILDE
JOSEFINA
MATILDE
JOSEFINA
FAUSTINO
JOSEFINA

¿Bañan zuk?... (*ixil aldi bat*) ¿Osasuna agian?
Ez, Jauna’ri eskerrak osasuntsua naiz.
¿Zer ba?
Nere semearen izaera.

Lan ez egite orrek badu bere kaltea.
Aundia bañan ez da ori geiena larritzen nauena. ¡Asiko al da orain!

MATILDE
JOSEFINA

¿Zer du? ¿Ixilpeko okerren bat?
Ez, ez, ondo agerikoa du. Ni samintzen nauena da bere Elizarako gogo txarrak.

FAUSTINO
MATILDE
JOSEFINA

¡Aitaren semea!
Ta bestea jamaren alaba!
Egia, alabak nere alde jo duen bezela, semeak aitarenera ta ori ez gertatzeko nik alegiñak egin ditudalarik. Txiki-txiki tandik ikastola onenetan sartuaz, elizara neronek eramana, ta dana alperrik.

FAUSTINO

Etxean ordea beste gauzarik ikusten, ta badakizu “zer ikusi, ura ikasi”. Aitak berera dana jarria dauka ta bere semetzaz txoratu dago. Ez du bere begietatik ez bada ikusten.

MATILDE

Gure illobak ez du lan erraza izango bere oitura ta Kristau sinismen onetan jartzen,

JOSEFINA
MATILDE
JOSEFINA

¿Asmo oiek al ditu? Poztutzen naiz.
Uste dezu bestela orrenbeste aurreratuko zanik.
Asieran, ezkongaietan, danok artzen ditugu asmo on oiek, agian gure adimenak ekartzen dizkigun eztabai garratzak aldentzeagatik; bañan gero, alkarren zaletasuna aunditzean, asmo oiek oztutzen dira, ta ikusi arren, garbi asko, senarra ez degula gure oituretara ekarriko ez degu utzitzen. Arkitzen ditugu ortarako arrazoi onak, edo onaren antzekoak, gure ezpa guziak uxiatzeko; gizon ona, agian ederra, asko maite gaituna, zer nai... ta atenez lasaitzen gera oldoztuaz, ezpada ere zuzentzen, ez degula guk errurik izango, ez degulako guk okertu.

MATILDE Bai, ala da. (*Sartzen da Maritxu. Entzuten dio Josefina'ri aurrena arriturik ta ondoren barren-samiña agertuaz, ta ixil-ixilik eskui aldera juango da*).

JOSEFINA Bañan nik orduan somatzen ez nuena, ta gazteak geranean ikusten ez deguna da, gu, alkartzearekin, ezkontzearekin, sendia izateko gaian jartzen gerala, ta emen dago nere samintasunaren iturria. Semea nerea da, nik sortua, nere senarraren gandik, ta nik, Jaunaren aurrean, ¿aski izango al det senarra zuzentzeko asmoa ba nuela esanakin arren bitartez sortutako semea Elizako lege pean eramaten jakin ez badet? Gure soin asmo guziak betetzeagatik bai al degu emakumeak aurrak sortzeko eskubidea?

MATILDE (*Ixil aldi labur ta neketsu bat*) Zuk alegiñak egin dituzu. Ez det uste Jaunak geigo eska lezakenik.

AMARGARREN AGERRALDIA
Lengoak Antonio, Enrike ta Pedro

ANTONIO (*Gelatik Enrike'rekin ateriaz*) Guazen Faustino. (*Enrike Maritxu gana*)

PEDRO Egun on danori.

DANOK Egun on.

PEDRO Egun on ama.

JOSEFINA Egun on Pedro.

ANTONIO (*Juan naian*) Guazen, guazen.

PEDRO Esan al diok?

ENRIKE Bai.

PEDRO Ta.

ENRIKE Alperrik.

PEDRO (*Antonio geldituaz*) Aita itz egin nai nizuke.

ANTONIO Orain ez, baniak.

PEDRO Juango zera, nik ere bereala juan bear det. Elkarrekin juango gera.

ANTONIO Orduan bidean itz egingo diagu.

PEDRO Bidean ez. (*Legor*)

MARITXU (*Osaba'ri*) Guazen gu, itz egin bearra dute ta.

FAUSTINO Guazen bada. Antonio, geldi ari, gu bagiatzik.

ANTONIO Ez, ez.

FAUSTINO Geldi ari mutil. (*Danok irten*)

AMAIKAGARREN AGERRALDIA
Antonio ta Pedro

- PEDRO Enrike'k esan dizula badakit.
ANTONIO Bai.
PEDRO Enrike'k ez dakiena da azkenengo urteetan etxe orrek izan ditun irabaziak. Amar milla duro urteko. Berrogei milla duro eskatzen ditu; lau urtean osatuak dakaizkit. Ez det ardiapat neretzako artuko. Len bezela jarraituko du nere sendiak ta urteroko irabaziak oso-osorik emango dizkitzut orain aurreratuko didazunaren alde.
- ANTONIO Bañan zer uste dek ik. ¿Berrogei milla duro onela, nola nai ematen dirala?
- PEDRO ¿Nola nai? ¿Or baño obeto nun jarri dirua?
- ANTONIO ¿Ondo, ire eskuetan?
- PEDRO (*Ezpañak estutuaz*) Nere eskuetan bai, ta baietz diot esan nezakelako. Nere izaerak, lanak ta gizontasunak ori esateko eskubidea ematen didatelako.
- ANTONIO Orrenbestean ire izena badaukak topatuko dek dirua.
- PEDRO ¿Etxean izan ta besteari eske asi bear det? ¿Zer esango dute guregatik?
- ANTONIO Neri bestearen esanak etziatek ajolarik ematen.
- PEDRO Neri bai. Aita, neregatik ez bada zeronen alaba ta billobagatik egin zazu. Etzaizu damutuko. Aien onarengatik nabil. Oitua nago lanian, aunditasunerako ametsik ez det, etzait ba neri gogorra arkitzen orain daramadan bizikera; gogoratuaz, ordea, nere emazte, ta nere aurtxoaz, illuntzen zait adimen guzia ta sortzen zaizkit beste oldozpen txar asko... Ez dizkidazu diru oiek ukatuko, zerorren alaba ta illobarentzat dira ta.
- ANTONIO Bai, bañan i bitarteko agola, ta ori eztiat nai.
- PEDRO Arzazu bada zorrek, ta nik lana egingo det.
- ANTONIO Nere lan guziak utzi ditudanian, azkenengo urteak pakean bizitzeagatik uste al dek orain berriro sartuko naizela lanetan?
- PEDRO Lana nik egingo det.
- ANTONIO (*Juan naian*) Alperrik abil. Eztiat nai.
- PEDRO ¿Ta Enrike'k nai balu?
- ANTONIO Ura gauza ez dek.
- PEDRO Ezkontzeko asmoetan da, ta zer edo zertan asi bearako du.
- ANTONIO Etzakela buru austerik ibilli arrek egin bear dunarekin.

PEDRO
ANTONIO

Biyok.
Ez biyok ta ez bakarrik, batere ez; utzi idazute neri pakean, buru auste ta lan berririk ekarri gabe, ta... naikoa itz egin diagu... Baniak.

PEDRO
ANTONIO
PEDRO

Aita.
(*Juanaz*) Zer aita, ta aita ondo...
¡Isabel gajua! ¡Zer egin zenduen nerekin ezkontzearekin!

OIALA.

BIGARREN EKITALDIA
Lengo jaungela bera

LENENGO AGERRALDIA
Antonio, Josefina ta Isabel

(*Josefina lanian, Antonio batera ta bestera*)

- ANTONIO ¿Ta ori da jakin dezun guzia? Ori ta batere ez berdiñak dira.
ISABEL Zer nai dezu bada itzik atera ezin bazaie. Alegiñak egin ditut
Maritxu gandik zerbait jakiteko, bañan alperrik. Ez dirala
asarretu, onez onian atzeratu dirala, bañan betiko bukatu
dutela. Ori da arengandik entzun dedan guzia.
Anaiarengandik berriz, orrenbeste ere ez.
- ANTONIO Onela ezin jarrai genezake. Zortzi egun mutillaren arpegia
ikusi ezin degula, zortzi egun otordu bat alkarrekin egin ez
degula, zortzi egun bere gelatik atera nai ez duela, ez
lagunetara juan ez kalera, ez iñora. Ez, ezin lezake orrela
jarraitu... erotu bear du ta...
- JOSEFINA Ez dakit ura erotuko dan, bañan zuk danok erotuko gaituzula
bai. Utzi zaiozu mutillari. ¡Ñor asarretu ote da bere
andregaiarekin!
- ANTONIO Zuk esateko ez da gauza asko. Ongi agertzen dezu
semearenganako gogo txarra.
- JOSEFINA (*Samin*). ¡Gogo txarra! Ez ote det bada zuk aña maite?
Maitatzia zuk uste dezu dala, kutitziz guzia betetzea, ta aren
asmoak betetzeagatik zoro egiñik ibiltzia. Ez, atsekabe abetan
ikasi egiten da, ta premiya dauka gure semeak, buru auste
batzuek erabiltzeko.
- ANTONIO Neskari arrazoia emaiozu eta ondo egin duela nere semea
utzitzea ere bai.
- JOSEFINA ¿Nork elkar utzi duten badakizu?
- ANTONIO Ezta jakingo ere zuekin. Laguntzalle onak dauzkat nik
etxean. Neronek bakarrik dana egin bearko detala badakit...
¡Obe!... Neroni juango naiz neskaren billa.
- JOSEFINA ¡Bañan gizona! ¿Egoki arkituko zenduke ori? ¿Zu neskaren
gana? Semeak jakingo balu, zentzungabeko zure asmo ori, ez
lizuke irtetzen utziko.
- ANTONIO Bere onagatik nik zer nai gauza egingo det.
- JOSEFINA ¡Naiz parragarri agertu!
- ANTONIO Berdin da. Ni neskarengana juango naiz, ta onez ala txarrez
asi bearko du berriro nere semearekin.

JOSEFINA Ja, ja, ja... (*Irripar samin bat*). Len esan dedana, danok zoratu bear degula, zu aurrena zerala.

ANTONIO ¿Ixilduko al zera?

JOSEFINA Obe zenduke zuk ixildu, ta ez orrela ari.

ANTONIO Ariko naiz nai dedan arte, ta egingo det nai dedana, zuk baño obeto betetzen dakizkidalako gurasoaren eginbearrak.

JOSEFINA Ori ere entzutekoak giñan. Guraso txartzat egiten nazu.

ISABEL Ixo ama, pakearengatik.

ANTONIO Orain bertan noa.

ISABEL (*Geldi naian*). Aita, etzaitezela juan, alperrik izango da ta.

ANTONIO ¿Ta zer egin bear degu ba?

ISABEL Onez onian arzazu Enrike, eta esaiozu buru auste oiek danak galtzeko artu ditzala beste burulan batzuek. ¿Sendagille egiña ez dago? dijuala bada gaxoetxera, beartsuak ikustera, zerbait egitera, ta lan orretan asi nai ezpadu artu dezala beste zerbait... agian ona izango litzake nere senarrak erosi nai duen irabazbide ori... biyak lan egingo luteke... nere senarrak erakutsiko lioke...

ANTONIO Nere semeari ire senarrak etzion zer erakutsirik.

ISABEL Esan nai nizun, lanik ez egin orrek, agian, neska atzeratu ote duen... Lanian ikusita... zer edo zertan saiatzen dala ikusita...

ANTONIO Enrike'k ez tin lanaren bearrik emaztea mantentzeko.

ISABEL ¿Ta janaren billa datorrela uste dezu Maritxu?

ANTONIO Etzekiñat.

ISABEL (*Samin*). ¡Askan jana, aberea ukullura! Gutxizaz artzen dezute neskaren izaera. Mantenduko dutela, jantziko dutela agian, ta ez du geigo zer eskaturik. Mutillean bear diran gizontasunak sakon ezagutzea, asmo, oitura, sinismen, izapide, sendi zaletasuna, dana jakin, ta ondoren egokia ala eza beretzako dala esatea, ez da neska gazte batek egin lezakena.

ANTONIO Esan nai den ire anaia ez dala Maritxu'rentzako diña?

ISABEL Ez, aita, eztet ori esan. Enrike mutil on bat da, bañan... berak nai duen guzia egiten utzi ezkerro. Berak nai ez duena egiteratzen danean ez dakigu zer izango dan.

ANTONIO I baña ohea beti. ¡Bai pozik anaitzaz gaizki itz egiten dedana!

ISABEL Ez da egiya ta samin zait zu poztutzeko itzak eziñ esana. Egiya garratza izan arren, beldurtu egingo al gera geronen artean azaltzea?

ANTONIO Berdiñak zerate ama alabak.

ISABEL ¿Ama on baten antza izatea kaltea al da?

ANTONIO Beti zitalak neretzako.

ISABEL Ez aita, ez orrelakorik esan. Agindu idazu... ¿Zer nai dezu? Berrero Maritxu'ren gana juatea nere anaiaren alde itz egitera?

ANTONIO Bai, ori nai diñat.

ISABEL Juango naiz ta ekarriko det.

ANTONIO (*Alai*). Egin zan ori....

ISABEL Bañan ekarri bakarrik... geigo ezingo det... Enrike'ren aurrean jarri ta itz egin dezatela. Itzaldi orretan adiskidetuko diran ala ez, ez dakit nik...

ANTONIO Ekartzen baden antolatua zion dana... Nik eta nere semeak...

ISABEL Aita, zuk ez.

ANTONIO Ekartzan, ekartzan. (*Alabari ateraño lagunduaz. Onek irten baño lenago ama laztandu*).

BIGARREN AGERRALDIA

Antonio ta Josefina

JOSEFINA ¿Zein ona dan gure Isabel! ¿Ta zein gutxi maite dezun Antonio! Enrike, Enrike, dana semearentzat dezu.

ANTONIO Zuk alabarentzat bezela.

JOSEFINA ¿Gajoari zer egiten diot, bada nik? Bizitzeko ere laguntzarik ez badiogu ematen.

ANTONIO Eman zaiozu. Nork galerazten dizu?

JOSEFINA Berak ez du ezer artu nai Pedro gandik ez bada, ta zuk...

ANTONIO Arri, ezer ez.

JOSEFINA Ta alabari... ezta.

ANTONIO Berak nai zuena egin zuen, ta jarrai dezala. Etziran asmo abek nere alabarentzako neukazkianak. Orri eman genion aziera ta ez emengo ikastetxe onenetan bakarrik, baizik Prantzi ta Inglaterrako berezienetan ta dana... arlote batekin ezkontzeko.

JOSEFINA Bai zuk naiko zenion etxe, izen aundi bateko semeren bati eman, ongi agertzen zekienen bati, naiz ardipat berak izan ez, ta jazkera ta itxura apainpean gogo ta soin ustelduak estali.

ANTONIO Danetakuak dira.

JOSEFINA Gure alabaren billa etorriko zana etzan gain gañekoa izango..., ta ez bera gutxitzakotzat daukadalako bañan... gu geroni ¿zer izan gera?... ¿zer gera? (*Apalki ta eztikor*). ¿Aztu zaizkizu gure asierak?... ni neskame... zu mutil... ¿zer giñan Pedro'ren sendia baño geigo?

ANTONIO Nere jatorriz ez naiz lotsatzen.

JOSEFINA ¿Lotsatu! ¿Nork dio? Gallandu baizik. Guk egin deguna Pedro'k egin lezake... ta guk baño errazago... guk lagunduta. Euskotar ona, zintzoa, sendoa, garbia, ondo aziya, zer geigo bear du gure alabak sendi on bat sortzeko, aurtxo osasuntsu ta eder batzuek azitzeko?... Antonio, eskatzen dizun laguntza emaiozu.

ANTONIO Enrike'ri emateko asmoa det.

JOSEFINA Enrike ez da gauza.

ANTONIO Neronek lanean erakutsiko diot, ta Pedro'k berekin ari nai badu...

JOSEFINA Pozik, ori nai du gure alabak. Besteren mendetik irten dedilla. Anaiarekin txit lagun da ta, alkar ondo eramango dute.

ANTONIO Bai baño aurrena Enrike ortaratu bear degu.

JOSEFINA Berotu zaiozu gogoia. Adoretu zazu.

ANTONIO Bai, poztu egin bear det, ta neska etorri bañan lenago. Bere gelara nua, zortzi egun abetan irten eztan gelara.

JOSEFINA ¿Nai dezu nik ots egitea?

ANTONIO Obe, ia bere gela zuloatik ateratzen degun.

JOSEFINA Bereala (*Juanaz*).

ANTONIO ¿Jakin al banezake neska mutil oiek zer izan duten! Utsenbat... ¿esango balu!... bañan musinduta jarraitzen badu alperrik izango dira nere galdeera guziak.

IRUGARREN AGERRALDIA

Antonio ta Enrike, bukaeran Josefina

ENRIKE ¿Zer nai nazu?

ANTONIO (*Altxa, semearen gana jua ta oso maitaki itz egiñaz*). Mutil... ikusi alitekek ire arpegia? ¿Itxura ona artzen ari aiz!... argaldu... begiak garrondoraño sartu zaizkik, bekokia zimurtu... zar itxura artu... ta dana ¿zergatik?... utsa gatik... neska baten gatik... orrenbeste diran lekuan... ator, ator onera, jau al da gazte baten bizikera, etxe zuloan sartu ta zortzi egunean atera gabe?...

ENRIKE Irtetera nijuan.

ANTONIO ¿Beingoan! ¿Nora?... ¿kasinora?... ¿lagun artera?... ¿jaien batera?... ¿nora? esantzak.

ENRIKE Nora nai...

ANTONIO Ezingo aiz beti orrela egon. Zer edo zertan asi ari... zer edo zer egintzak.

ENRIKE ¿Egin? ¿Egundaño egin al det? ¿Gauza al naiz ezer egiteko?

ANTONIO Etzakela ori txantxetan ere esan.

ENRIKE Alper, ta alperrikako bat naiz.

ANTONIO ¿Oraindik geigo?

ENRIKE ¡Txantxetan!... ¿Zer da nere bizikera? ¿Egundaña ezer gauza danik egin al det?... ¿Zertarako jaioa naizen bai al dakit nik?

ANTONIO Burua galdu dek. ¿Ire ikasketa guziak alperrikakotzaz dakaizkik?

ENRIKE ¡Ikasi, ta nola! Ta zertarako ikasi ikaste oien bitartez neronen, edo besteren ontasuna arkitzen ez badakit.

ANTONIO Artez ua... ori dek. Asi ari lanian. Lanak ez nekatu, baizik poztu ta alaitu egiten dik. ¡Nere gazte egunetako lan egiteak! Gau ta egun, ekiten niokan, neurririk gabe, nere sendiaren bearrak beti begi aurrean nekaizkiela... Asi, asi ari...

ENRIKE Ez naiz gauza, gañera sendakintzan ezer ez dakit.

ANTONIO Asieran besteak zekitena. Ikasiko dek; saiatu ari. Nai aldeak izen aundikoen batengana juan?

ENRIKE Ez...

ANTONIO (*Ixil aldi bat*). Ta beste lanen batean?

ENRIKE Zertan?

ANTONIO Pedro'rentzako eskatu naken irabazbide orretan naiko ukek.

ENRIKE Ez. Berari emaiozu.

ANTONIO Arri ez, iri nai badek.

ENRIKE Pedro nere aldean gizona da, emaiozu.

ANTONIO Ta ik... (*Enrike'k bizkarra altxiaz*). Enrike, ez aut orrela ikusi nai. ¿Zer nai dek? Neskarekin berriro asi.

ENRIKE (*Bizkor*). Ez...

ANTONIO ¿Ori ere ez? (*Antonio gelditzen da arriturik. Ixil aldi labor bat*). Ua ba orduan ibilte aundi bat egitera, Prantzira, Ingalaterra... Alemanira... nai dekan lekura... ua... beste lurrak ikustera... beste emakumeakin emengoa aztutzera...

ENRIKE Ez det nai. Trenak... Hotelak... nekeak... beti arpegi berriak... aspergarria zait.

ANTONIO ¿Zer nai dek orduan?

ENRIKE Pakean utzitzea. (*Pizkor ta gogor*).

ANTONIO Ta etxean baztertuta bizitzia. Nola nai dek guk ori onez eramatea.

ENRIKE Ta zergatik ez. Etzaitetzela nere ondotik ibili, mukitsu bat baniz bezela, utzi nazazute nai detan bizikera egiten; zaudete nigatik ardurarik gabe.

ANTONIO Ez, ez.

ENRIKE ¿Zergatik ez?

JOSEFINA (*Senarraren gana juanaz*). Antonio, Faustino'k zurekin itz egin nai du.

ANTONIO ¿Orain?... Orain ez.
 ENRIKE Neregatikan bai... ni kalera nua.
 ANTONIO Eztiat bear nikan guzia esan. Itxon zak.
 ENRIKE Gelan egongo naiz.
 JOSEFINA ¿Zer esango diot?
 ANTONIO (*Ixil aldi bat ta gero dio Antonio'k*). Datorrela. (*Josefina atzeratuko da ta eskuarekin ots egingo dio Faustino'ri*).

LAUGARREN AGERRALDIA

Antonio ta Faustino

FAUSTINO Egun on Antonio.
 ANTONIO (*Gogo txarrez ta eseriaz*). Egun on.
 FAUSTINO Etxetik netorrek. An utzi diat ire Isabel gure Maritxu'rekin. Alegiñak egiten zizkak onera etortzeko bañan alperrik; orregatik netorrek ni... ire alaba gajua negarrez ikusiak kupituta. Maritxu'k ezтик etorri nai, ez guk galerazten diogulako. Zer izan duten guk etzekiagu, ta guk etzioagu galdetu ere. Neskak egun txarrak erabili dizkik, bañan beti bezela agertu dek gure aurrean, aski dek eta, bere atsekabeak bakarrik eramateko.

ANTONIO Axaleko miñak...
 FAUSTINO Bazekiat egun txarrak daramazkitzutela ¿ta zergatik? semea ez dezutelako alai ikusten. Uste dek gurasoaren egitekoa dala beti semea alaitzen egotea. Latzago, latzago azi bear dituk semeak. Ikasi dezala bizitzen; agian ongi etorriko zaiok gertatua (*Antonio'k par irri bat*); ta ez uste poztutzen naizenik, nik eta nere emazteak zartada aundia artu diagu ta... ¿bañan uste dek itxurakoa dala onela ibiltzea... danak asarre onela bizitzea? Ez: beti bezela jarrai zagun ta lasai gaitzen... ez dek ori eriotza... (*Antonio'k ez dio erantzuten; ixil aldi luzea*). Ta orain baniak... barka nazak... ta agur...

ANTONIO Ao. ¿Ik ezagutzen dek Jauregi, burni tratuan ibiltzen dana?
 FAUSTINO Nola ez?
 ANTONIO Saldu egin nai dik.
 FAUSTINO Bai, atzo jakin diat, bere emazteak esanda.
 ANTONIO Irabazpide polita izan bear dik. Enrike'rentzat artuko ote detan niok.

FAUSTINO ¿Gizona poztutzen nak! Nork zekik lanean aste orrek ez ote duen osoro biurtuko... ta agian berriro...?
 ANTONIO Ortan nebilek, bañan Enrike'k ezтик nai.

FAUSTINO ¡A! ¡Ori txarra! Ain gaizki oitua ziok...
 ANTONIO Agian ik esanda.
 FAUSTINO Nik, pozik bañan ¿zer nezakek?
 ANTONIO Maritxu'ren osaba aiz... aitatzakoa ere bai... ik esanda...
 FAUSTINO Bereala nai badek. (*Antonio'k maigañeko zintzarria juaz*).
 ANTONIO Jauregik ¿zergatik uzten dik?
 FAUSTINO Aberastu dalako, ta premi geigo ez daukalako. Ondotxo eskatzen dik.

 ANTONIO Bazekiat.
 NESKAMEA Jauna.
 ANTONIO Ots egin señorituari.
 NESKAMEA Bai jauna (*Juan*).
 ANTONIO Berrogei milla duro.
 FAUSTINO Ta ezetik gutxiagoan emango; ¡ba! iretzat ori ezer eztek.
 ANTONIO Emen zetorrek, zerbait esan akiok.

BOSTGARREN AGERRALDIA

Antonio, Faustino ta Enrike

(*Enrike sartu*)

FAUSTINO Ez det juañ nai izan zuri agur bat egin gabe. Gertatua gertatu arren, len bezin adiskide arkituko nazu eta lengo eran jarraituko degu bi sendiak.

 ENRIKE Eskarrik asko.
 FAUSTINO Ta orain, zorionak, poztutzeko bidean sartzera zuazelako. (*Enrike arritu*). Aitak esan dit Jauregi'ren landola eroñera dijuala ta zuri ematen dizula.

 ENRIKE ¿Ori esan dizu?
 ANTONIO Bai, iretzako erosteñ niak, ¿naiko dek?
 FAUSTINO Ez dizu ezetzik esango. Nork lezaizkiken onen urteak ta onelako irabazpide bat eskuetan. Amets gozoak ta zenbaterañoak egin litezken. Bizikeraren jabe izatea, naiko diru irabaztea, iñoren bearrik gabe, ta laguntzarik gabe nun nai agertzia, ez da ori pozgarria?

 ENRIKE Ta nor atzipetuko detan, nori salneurri aundiagoak sartuko dizkiodan izakera guzia eramatia. Dirua nori ta nola kendu, zenbat eta zenbateraño gorde, gero, agian, etxean sortutako seme batek arrunt bota dezan. (*Azkeneko itzak oso illun*).

 ANTONIO Ortarako ere jaso egin bear aurreña.
 ENRIKE Ba.

FAUSTINO Batere ez naiz arritzen zuri onela entzunda; norekin zabiltzan jakitea naikoa da; egun abetan gañera, adimena ere illunpetua daukazu. Asi zaitetz lanean, ta gogoz eltzen badiozu beste erara itz egingo dezu.

ENRIKE Bai, lanak uztarpetzean.

FAUSTINO Lana bearrekoa da. Agindu bat da.

ENRIKE Bai, “kopeteko izardiaz irabazitako ogia jango dezu”. Polita besteri esateko, bañan al duenak izardirik atera gabe bizi naidu.

FAUSTINO Orrenbesteko izardi atera bearrik ez dezu izango.

ENRIKE Egiya. Nik egingo detan lanarengatik.

ANTONIO Makiñatxobat egiña nak zuen ontasunari begiratuaz, ta orain ere orrengatik nebillek. ¿Erosiko al diat? ¿Esantzak?

ENRIKE Nork galerazten dizu.

ANTONIO Galerazi iñork ez, bañan ire gogozkoa dala entzun nai diat.

FAUSTINO Bai gizona, bai.

ANTONIO Iretzat orduan.

ENRIKE Neretzat edo besterentzat.

ANTONIO Iretzat.

ENRIKE Neretzat. (*Bukatzearren amor egiñaz*).

FAUSTINO Zori onak Enrike, ta iri ere bai Antonio.

ANTONIO Bai, pozik artzen dizkiat.

SEIGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Isabel

ISABEL (*Atzetik oju egiñaz*). Enrike.

FAUSTINO Isabel ¿nere etxetik zatoz?

ISABEL Bai.

FAUSTINO Zure aitari esan diot zure alperrikako lana.

ISABEL Alperrikakoa ez; Maritxu ekarri det.

FAUSTINO ta ¿Maritxu?

ANTONIO Bai, Enrike'rekin itz egitera.

ISABEL Eskarrik asko alaba. Gaur egun alai argitzen da. Goibel ilumpe bizian daramat aste osoa, bañan zirkillu batetik izpi argi bat agertzen da.

ISABEL Ez bada tximist argia!

ANTONIO Guazen orain kalera; gero jakingo den zertara nuan. Guazen Faustino.

FAUSTINO Agur Enrike.

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Enrike ta Isabel

- ISABEL Zurekin itz egitera dator.
- ENRIKE ¿Nola? Betiko eten bagenituen alkarganako adiskidetasunak?
¿Aldatu da? ¿Berriro asi nai du?
- ISABEL Ez, nik beartu det, derriorrian dator.
- ENRIKE Orduan ez tet itz egin nai. Zein naizela usteko du onela nere etxera ekarrita.
- ISABEL Zuk ez diozula ots egin badaki, ni naiz beartu detana... egokia zuretzat arkitzen detalako, ona, biotz aundikoa, isila, besteren akatsak estaltzen dakiena, nabarmentasunik ez dubena. Enrike, ez nuke besterik naiko nere koñatatzat. Ura sartu bañon lenago orregatik esan nai dizut ez daukala zuretzako gorrotorik, ta zuk ere beretzako ez idukitzeko.
- ENRIKE Une batean ere ez da nere biotzean bere kalterako, asmo txar bat sartu.
- ISABEL Argi itz egingo dizu, ala esan dit, len oztu ta atzeratzeko izan dituzuten gai oietzaz... Badakizu bere naia... ¿ez al da zurea berdiña izango?... alkarri amor emanda ¿ez ote zerate batuko?... Enrike... danok nai batean gaudela oldoztu zazu ta danok zuen ona nai degula... ta... banua Maritxu'ren billa. (*Eseri oso oldezkor*).

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Enrike ta Maritxu

- MARITXU Enrike.
- ENRIKE (*Altxa ta bizi bi eskuak luzatuaz*). Maritxu, eskarrik asko, ta barka nazazu... Lotsatuta nago zu nere etxean, ta nere aurrean ikusita. Ez naiz ni izan beartu zaituna.
- MARITXU Badakit.
- ENRIKE (*Eseritzera eramanda*). Bañan pozik nago orain; zu nere aldamenean ikusi utsarekin, juaten dira nere burutik kezka, zalantza ta naigabe guziak. Ikusten det ludia beste era batera, ez nagolako bakarrik... badalako norbait inguruak alaitzen ta argitzen dizkidana ta bizitzeko gogo berria ekartzen didana.
- MARITXU ¡Enrike!
- ENRIKE Zure ondoan izan nai det, zurekin, alai ala asarre, adiskide ala muturka, izketan, jardunian, bañan zurekin, beti zurekin. Zu gabe bizitzeko gogorik ez daukat. (*Atzeneko itzak illun*).

MARITXU Ikaratzen nazu, Enrike.
ENRIKE Egiya esaten dizut. Zoratzeko zorian egun abek igaro ditut ta berriro ortaratu bear badet... ¡zertarako bizi!

MARITXU Era orretan ez da gaztearen alkartea artu bear. Ezta jolasean ere egiya, ez bai dira jolasak betiko alkarrekin lotu ta sendi bat sortzea. Garai au da, ta orretarako dira gai daudenenaren ibillerak, alkar ezagutzeko garaia, ez txoro-txoro, pozik, alai ta arinki, bi usoren antzera, egun guzian alkar limurtzen egoteko.

ENRIKE ¡Ori bada bizitzea!...
MARITXU Mariposaren antzera.
ENRIKE ¡Zer dio?
MARITXU Enrike, ez gera aurrak. Gure sasoian ezin gindezke onela ibili txoro-txoro, geroke asmo geigo gabe. Gaizki bukatuko genduke.

ENRIKE ¡E!
MARITXU Gaizki esan nai det, ezingo giñakelako atzeratu ondotxo aurreratu ezker, ta onek bildurtzen nau.

ENRIKE Ez nazu maite! (*Samin*).
MARITXU Etzaitut oraindik maite nai, ortarako nere biotzari gogor egin bear badiot ere.

ENRIKE ¡Ain gaiztotzat naukazu?
MARITXU Ez, Enrike. Beste edozein neskak ez lituke nere buruaustek erabiliko, ta nere kezkar ez lioke par besterik egingo, bañan sinismen egizkoa daukat, Jaunari eskerrak ta Onen naiak garbi ikusten ditut. Ni sendi bat sortzera juateko, naiko det nere senarra, nere antzera, Jaungoiko zale izatea, ta, Enrike, zu etzera...

ENRIKE Nik ez dizut galeraziko nai dituzun elizkizun guziak egiten.
MARITXU Bañan zu etzera juango.
ENRIKE Ni... ez...
MARITXU Enrike!
ENRIKE ¡Ta zer dio? ¡Sinistu! Nik ere sinisten nuen, edo sinisten nuela uste nuen, txikitan... amak ala nai zuelako... Erakutsi ziran Jaungoiko, trakets bat, aitaren egiten etzuten aurrak kosketan botatzen zituena; gezurrak esateagatik bekatxoak atera azitzen zituena...

MARITXU Ez da ori Jaungoikoa...
ENRIKE ...ta beti nondik eta nola gaitz eta miñak gureganatuko zituan ibiltzen zana... Ontasunak berriz... nik ez det ikusi iñori ekartzen.

MARITXU Gure griñak ta oitura txarrak kentzeko esaten zizkiguten esakerak dirala oiek bakadizu zuk. Jaungoikoa beste gauzarik dala ere bai.

ENRIKE ¿Jaunak nai ez padu, ez dala ezer gertatzen esaten ez da ba?

MARITXU Ta ala da. Jaunaren aunditasuna ta errukia nun nai agertzen da, naiz zuek ikusi nai ez.

ENRIKE Zuk ikustearekin neretzako aski da. Zu zoriontsu zera zure sinismenekin, utzi nazu ni sinismenik gabe, edo oldoztu zazu baditudala, ta zuk bezin sutsuak, ta jarrai zagon.

MARITXU ¡Ezin!

ENRIKE Nere ama zu bezelakotxia da, ta ¿ez al da zoriontsua?

MARITXU Ez.

ENRIKE ¿Nola?

MARITXU Biotz barrenen kezka garratzak ditu.

ENRIKE ¿Aita gandik?

MARITXU Ta zu gandik.

ENRIKE Eraman ezin litekena da ori. ¿Galerazten al diogu guk, nai duen bezela ta nai duen aña elizan ta elizakoakin ibiltzen? ¿Zer eskubide erakutsi lezake gure eginpenetan sartzeko?

MARITXU Senarraren, ta batez ere semearen gain ez eskubide utsa baizik bearra. Berak sortua zera; berea zera.

ENRIKE Ez bere magalpean beti egoteko. Bizi bear det, neri datorkitan bizikeraz, ta ortarako azke naiz. ¿Gizonaren eskubideak nork laburtu?

MARITXU ¿Ta Goijaunaren eskubideak?

ENRIKE Ez ditut ezagutzen.

MARITXU ¿Ta aren aginduak?

ENRIKE ¿Zertarako bete?

MARITXU ¿Etzaitu ikaratzen?

ENRIKE Zenaiak, keñadak, egundaño iristen ez diranak.

MARITXU Eskaintzen dizu bizi illezkor zoriontsua edo ikaragarritzko txarra.

ENRIKE Askia det emengo bizikera ona.

MARITXU Nere nai guziak artara zuzentzen ditut nik.

ENRIKE Ta aruntz, eriotzaren aruntz izango danakin nai nazu orain apaiz gonapetu, ezereztu ta txetu.

MARITXU Betiko atsegiña irabazi bear da, ta ortarako lanak badira, bañan lan abek ez dute gizona, txetzen, baizik aunditzen.

ENRIKE Elizkizun ta aziera txarrak okertzen dizkitzute adimenaren argitasunak ta sortzen dezute eraman ezin liteken bizikera ospela.

MARITXU Egizkoak dira.

ENRIKE Gezurrez sortuak dirala nago.

MARITXU Ez dezu sinisten (*samin*).
 ENRIKE Eztet sinistu nai... (*legor*). (*Isil aldi luze bat*).
 MARITXU Ez gera ulertzen.
 ENRIKE Ez.
 MARITXU ...orduan.
 ENRIKE ...orduan.
 MARITXU (*Altziaz*) Bukatu degu.
 ENRIKE Bukatu degu (*naigabetuaz*).
 MARITXU (*Biurtu ta poliki-poliki irtenaz*). Agur.
 ENRIKE Agur. (*Juten ikusi ta gero etzango da eserlekuan burua esku arten jausiaz*).

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Enrike bakarrik

Eten da gure alkartea... bigarren aldiz eten, ta oraingoan betiko. Amaitu da dana gure artean. Nere asmoak, nere itxaropenak, batez ere nere inguruan ikusi dedanean, aundiak ziran, zernai bere alde egiteko gertu negon, ta gero, jardunean berotuaz zeta gogorrari ekin diogunean, ez amor apur bat emateagatik danak ukatu ditut. ¡Zipotza izan ni ta nerekoia, iñoren arrazoietara etortzeko!... ¡Bapo! ¡Gizon gelditu aiz Enrike! Andre batek ez au menderatu, bañan ezta, ik ere ireganatu, ta bera gabe ez aiz biziko...

Nai detan guzia egiten oitua ta nere nai aundienak jarri ditudan naitasunean eraman det jipoirik aundiena.

¡Guk gizonak, nola nai ibiltzen omen ditugu emakumeak!

¡Nolakoak ezik! Maritxu bezelakoak ez.

¡Zein sakon begiratzen duen! ¡Zein garbi ikusten duen!

Gezurra nola esan begi aien argitasunakin nere barren guzia ikusten bazun!

Ta orain ¿zer diok? ¿zer esan bear diok gurasoari, ire arrebari?... (*Ikaratu*) Ez det iñor ikusi nai... iñorekin itz egin nai... ¿nora juañ? ¿zer egin?...

AMARGARREN AGERRALDIA

Enrike ta Julian

- JULIAN ¡Kaxo Enrike! Galdetu gabe ta baimenarik gabe netorrek. Eskatu banikan bazekiat zer erantzungo ukan ta... ez aola... Mutil, urte bete badek ez autela ikusi.
- ENRIKE ¡Gezurra!
- JULIAN Urte bete ez bañon... aste bete bai.
- ENRIKE ¿Ta zer bear dek?
- JULIAN Ire arpegiya ikusi, ta i alaitu. Mutil neska batengatik i aon eran. Ori ez bezelako neskak ugari arkituko dizkiagu... nai dekanean.
- ENRIKE Maritxu'ren kaltez itz egitera etorri baaiz, bauake... ara or atea.
- JULIAN Piper miñ ao.
- ENRIKE Ta i berritsu.
- JULIAN Beti bezela. Zer uste dek, i bezela jarriko naizela muxinduta, kixkurtuta, prejituta, neska...
- ENRIKE ¿Zer?...
- JULIAN Neska... neska ezer ez, neska baten-gatik... Lagun guziak jardunean ari dituk ta i aietara eramatea etorri nak.
- ENRIKE Ez nak juango.
- JULIAN ¿Ez aizela juango? ¿Ta zergatik ez?
- ENRIKE Nai ez detalako.
- JULIAN Jarri zaik zeta...
- ENRIKE Nere seta ta iri berriketa. ¿Zertara ator? ¿Zer nai dek?
- JULIAN Zerbait esan, bañan arpegi ori alaitzean.
- ENRIKE Orduan bauake.
- JULIAN I gabe ez. Ire billa netorrek. Guazemak. Egun ederra igaro bearrean giotzik... (*Oso limurki*).
- Lagun onaz beti gogoratzenak ni... Biarritz'ara jua bear diagu... Kosme'ren beribilean...
- ENRIKE Ez.
- JULIAN Bukatzen utzi nazak. Kosme, i, ni, ta laugarren...
- ENRIKE Zuen antzeko aluen bat.
- JULIAN Bai zera... (*Ixilka bezela*).
- Injeniero alemandar arren andre ura.
- ENRIKE ¿Atxitu dezute?
- JULIAN Kostata, bañan gaur gurekin dek. Senarra mina batzuek ikustera jua dek eta gaur gurekin zetorrek. Lagun ona ez naizela esan nazak, itzaz ni gogoratu nak.
- ENRIKE Ez nak juango. Gizon orri egin nai diozutena billaukeri bat dek.

JULIAN ¡Oi!... iri burua nastu ditek. ¿Noiz ezkerro sartu zaizkik ezpa oiek?

ENRIKE Etzekiat, bañan ala dek.

JULIAN ¡Iriak egin dik! Batek egin dikana aztutzeko zazpi mila erabilli bear ta...

ENRIKE Utzi nazak, utzi nazak arren.

JULIAN Ez... Injenieroen emakume eder ura dek... musu gorri... bular bete...

ENRIKE Ao ixilik, zerri bat aiz i.

JULIAN Kosme... i... ni...

ENRIKE Aski dekala... ua etorri aizen lekutik.

JULIAN ¿Bakarrik?

ENRIKE Bakarrik. Ez nak geigo zuengana juango.

JULIAN Ara or *xantua*.

ENRIKE Ez beñepin i bezin alua.

JULIAN Luisetan sartu ari... an izango dituk lagun onak... Etzaiz gaizki egongo lepotik zinta urdiña zintzilik dekala.

ENRIKE ¡Petrala aiz!

JULIAN Ta i txotxolua; baniak (*juateko jira emanaz*).
 Dominus vobiskun... vobiskun... i, vobiskun... (*Enrike'k inguruan daukan zerbait bota nai dio*).

AMAIKAGARREN AGERRALDIA

Enrike bakarrik

¡Astunegia da au! ¡Nik eraman ezin añakoa! ¿Ta zer gertatzen zaiten, neronek ere badakit? Julian'ek arrituta entzuten zidan, par zeri-on, ta nola ez? ¡Ni aien lizunkerizko zaletasunak itsusitzen! ¿Ta zer izan naiz ba ni?

Ongose ta zuzentasun auek ¿nondik sortu zaizkit neri?

Erotu bearrean nago!...

Galdu det nere izate guzia, alaitzen nindun andregaiia, ez bere ekandu onari jarraitzearren...

Galdu ditut lagunak, ¡ta ondo galduak daude! ez beren oitura lasaietan geigo kutsutzeagatik, ta orain... ¿zer gelditzen zait?... ¿zer egin nezake nere bizikera samin ta atsekabe onetan... (*entzuten du barrenen izketan*) ¿aita? (*atzeratu ta entzunaz*) bai, ta pozik dator... (*Larri*) ¡A! erosi dula Jauregi'ren lantola... (*aurreratuaz ta samin*) ori gelditzen zait... lana... lanean asi bearra... ta ortarako bizi... (*Asiko da sotinka... datorkio asmo bat... oldozten jartzen da, ikara erakusten du, begiak*

zabalduaz... onela jarraitzen du astitxo batean ta bat batean erabaki sendoa artu balu bezela dio).

Obe... zertarako bizi... (juaten da irtetera... begiratzten du ezkerretata, bizi bizi juanten da eskuitara, bere gela aldera).

AMABIGARREN AGERRALDIA

Antonio ta Josefina

- JOSEFINA *(Enrike juaten ikusi ta gero biak sartuaz).* Enrike.
- ANTONIO Utzi, gero ots egingo diogu. Alaitu, alaitu Joxepa. Illuntasunak badijuaz... argiya badator... poztu, poztu...
- JOSEFINA Zu onela ikustearekin poztua nago. ¿Erraz egin dezute beaz?
- ANTONIO Bereala bukatu degu. ¡Gizon prestua Jauregi! Berrogei milla duro; etzuen ardiapat gutxiago nai. ¡Balio ditu! lan asko egiten dan etxea da. Idatzi degu bear dan agiria. *(Erakutsiaz)* Utzi dizkat ezagungaiz bost milla duro, illabeteren buruan gañeakoak ordaintzeko, ta nai degunean jabetzera juateko entzunaz irten naiz pozik, ikusten detalako gure Enrike'rentzat aurrerapen ona ta erraza.
- JOSEFINA Poztutzen naiz Antonio, batez ere gure semea lanean ikustearekin. Ezer ez egin orrek kalteak besterik ekartzen ez dizkiote gazteari. Gaurko egunean, guk, gurasoak, zerekin bizia utziagatik, irabazten ez badute danak galtzeko bidean jartzen dira. Gutxik dakite irabazten, banakak gordetzen, geienak galtzen.
- ANTONIO Bai, ala da.
- JOSEFINA Ala ere zu ziñan ba beñere lanean jarri nai etzenuena.
- ANTONIO Gaztea dan bitartean bizikera erraza eman naian, gure gaztetasun garratza gogoratuaz.
- JOSEFINA Obe da garratz azi ta ez bera. Garratz ta latz azi danak eragozpenari gogor egiten badaki, bañan berak... *(Entzungo da tiro bat).*
- ANTONIO *¿Zer da ori? (Irtengo da oso larri).*
Utsa. Antontxu'ren trakeskerien bat. *(Eskuan daukan idaztia maian gordiaz).*
Ori baño gaizkio azitako aurrik... *(Entzungo da karraxi aundi bat).*
¿Zer da? ¿Emaztearen oiua? (bat batera atzera biurtuaz).
Enrike... Enrike ...
- JOSEFINA *(Agertuko da purrukatua ta zutik ezin egonaz lurreratuko da).*
¡Enrike'k... bere burua il du! ...

ANTONIO ¿Enrike'k?... ¡Argitasuna! ¡tximistaren argitasuna zan!...
(*Etzanaz eserlekuan*).

OIALA

IRUGARREN EKITALDIA

Lengo jaungela bera. Orman zintzilik Enrike'ren argazki bat. Mai gañean beste bat.

LENENGO AGERRALDIA

Josefina ta Antonio (*Danok, beltzez jantziak*)

- JOSEFINA Illen atzena da, ta badakizu gaur, bukatzen dala Jauregi'ren landola erosteko eguna (*Oso zakar*).
- ANTONIO Badakit, ¿ta zer?
- JOSEFINA Juateko, erabakitzeko ta bukatzeko. Ez dituzu beñepin, bost milla duro alperrik galdu naiko.
- ANTONIO ¡Bost mila duro! Zertzaite neri bost milla duroengatik semerik ez badet. ¿Norentzat nituen beretzat ezik? (*Eskuan Enrike'ren argazkia artuaz*).
- JOSEFINA Alaba ere badegu.
- ANTONIO Bañan semerik ez. Enrike, Enrike nai det nik.
- JOSEFINA ¡Betiko leloa!
- ANTONIO Betiko leloa bai. Ura zalako, ta ura dalako, oraindik ere, nere bizi guzia. Ezin badet soñez nere ondoan iduki, irudiz, asmoz ta gogoz beti nerekin egongo da.
- JOSEFINA Badirudi, bai, gañerako guziak il gerala... ta ez ura.
- ANTONIO Neretzako bai.
- JOSEFINA Eskarrik asko. ¡A gizarajoa!
- ANTONIO Ez ni kupitu.
- JOSEFINA Arrazoi dezu. Kupigarrigoak gaude gañeakoak, zuk egunero erabiltzen gaituzun bezela.
- ANTONIO Irabazitakoa... ¡Poztu egin bazerate Enrike juanakin!
- JOSEFINA ¿Zer diozu gizona? ¡Ama bati ori esan! Gau ta egun negarra begietan ekartzen didan semeagatik ardurarik ez detala? ¡poztu egin naizela bere eriotz talmagarri orretzaz? Antonio, neurri gabeko atsekabe onek itxutua zauzka. Utzi ditzagun alkarganako susmo txar auek. Bizi gaitezen aldegun ondoena, ta alkar eramanaz, gelditzen diradenentzat.
- ANTONIO Bai, Pedro ta bere semeentzat: Oiek buru auste aundia ematen dizute.
- JOSEFINA ¿Isabel'en sendia ez daba? ¿Gure ondorengoak ez dira ba?
- ANTONIO Ez, nere ondorengoa ta oñekoa Enrike zan... ta da... (*ixil aldia*).
- JOSEFINA Illaren atzena dala esan dizut.
- ANTONIO Badakitela erantzun dizut.
- JOSEFINA Zer egin bear dezun jakin nai det.
- ANTONIO Nai detana egingo det.

JOSEFINA ¿Zer da ori?
ANTONIO Jakingo ez dezuna.
JOSEFINA Emaztea naiz ta jakiteko eskubidea daukat. Zu aña naiz etxe onetan.
ANTONIO (*Oso zakar*). ¿Zu ni aña?... ¿zuk neri agindu?... Enrike'ren onagatik ezer egingo etzendukena, etxe onetan negarra ta atsekabea sartu dan ezkeru pozik zaudena. (*Emaztegajuak ezetz esango dio danari*).
JOSEFINA Ez... ez...
ANTONIO ...¿zuk orain neri agindu?... ¿ta zer?... Pedro ta bere enda madarikatuari laguntzeko.
JOSEFINA Ixo, ixo gizona!
ANTONIO Ixo, ixo orain zuk nai dezun guzia esan dezunean.
JOSEFINA Ixo, entzungo dute ta?
ANTONIO Entzun dezatela... entzuten badaude...
JOSEFINA Nik entzutea naikoa da lotsaz betetzeko.
ANTONIO ¿Lotsa? Baluteke bai.
JOSEFINA Neri nai dezun guzia esatea naikoa ez da la, besteari ere bai.
ANTONIO Danari.
JOSEFINA Emen daukazu il guzian zure alaba gajua, bere etxea utzi ta nola guri on egin asmatu ezin duela, ta ordaintzat... lotsik ez duela diozu.
ANTONIO Nere onarengatik ez dago, berea gatik baizik.
JOSEFINA Esker txarrekoa zera.
ANTONIO Ta zu beti bezela zitala.
JOSEFINA Zuri ona nola egin bizi danari ¿zitala!
ANTONIO Nola ni erneatuko nauen dabilenari. ¿zitala!
JOSEFINA Ikusia dago. Ezin liteke zurekin bizi. Ezin asmatu degu zure naia.
ANTONIO Nai ez dezutelako.
JOSEFINA ¿Nai ez beaz?
ANTONIO Nai ez, ta utzi nazazu pakean; zuaz emendik ta betiko juaten bazera obe.
JOSEFINA ¿Etxetik botatzen nazu?
ANTONIO Onela eztet geiago zure marmarrik entzungo.
JOSEFINA (*Entzun dunaz arriturik aldi batean oldozkor*). Ondo da... ori ere egingo det ba; ... etzaitut geigo erneatuko... juango naiz.
ANTONIO Obe.
JOSEFINA Bai, obe izango da. Damagun ill onen antzera ezin jarrai genezake. Egunero asarrea, egunero burruka, geiegia da... Gaur bertan irtengo naiz... ta zu ni gabe obeto bazera...
ANTONIO Izango naizen bezela.

JOSEFINA Ori naiko det... Ondo da... (*Juanteakoan agertu dira atean Isabel ta Pedro. Entzun dute, samin daude ta Isabel negarrez ama laztantzera*).

BIGARREN AGERRALDIA

Lengoak, Isabel, Pedro ta neskamea

ISABEL Ama! Ama gajua (*Laztazduaz*).

JOSEFINA ¡Isabel, nere Isabel!

PEDRO Aita... (*Kementsu aita gana junaz*).

ANTONIO Ez nak ni ire aita... nere semia Enrike ukan, ta... Enrike dek... i ez. (*Ori esanaz juango da bere gelara ezkertero atetik*).

ISABEL Guazen ama, guazen etxe onetatik.

JOSEFINA Bai, guazen.

PEDRO Guazen gure etxera. An beñepin pakea izango degu.

JOSEFINA Pakea arkitzeko premia daukat.

NESKAMEA Etxekoandrea...

JOSEFINA ¡Zer nai dezu? (*naigabe aundiz*).

NESKAMEA Don Faustino da.

JOSEFINA ¡Nor nai du?

NESKAMEA Ez du esan.

JOSEFINA Ni ez nago ba iñoren aurrean jartzeko.

ISABEL Ez ama, guazen gu, Pedro geldituko da, ia zer nai duen. (*Juaten dira biak*).

PEDRO ¡Gajuak! (*Juaten ikusi ondoren neskameari*). Datorrela.

NESKAMEA Ondo da.

IRUGARREN AGERRALDIA

Pedro ta Faustino

FAUSTINO Egun on, Pedro.

PEDRO Egun on, Faustino.

FAUSTINO ¡Nola zerate?

PEDRO Gaizki... egunetik egunera okerrago, jau ez da bizitzea! Edozeñek esango luke nere aitagarreba ez dala poztutzen negarrez danak jarri artean. ¡Bi emakumeari orrek ematen dien nekea! Neri berriz zer esanik ez... eskerrak eztiotela nik jaramonik egiten, bañan onela ezin gindezke izan.

Nere emazte gaxua urtu da, ama, zer esanik ez, ta nere etxea agindu ta zuzentzeko iñor ez dakala; goiaz bera dana dabil.

FAUSTINO Gogorra gerta zaio ere Antonio'ri. ¡Bere seme kutun ura galdu!

PEDRO Ez du etsi nai. Enrike oraindik ere nai du. Or dabil beti Enrike'ren galdezka, Enrike'tzaz itz egiten, Enrike arkitu nairik. Jarri dizkigu Enrike'ren irudiak alde guzietan, ormetan, mai ta txoko guzietan... badabilzki patrikan... otorduetan maian oraindik bere lekua gordetzen zaiola esanakin, dana ikusia dago.

FAUSTINO Itxura gabeko gauzak dira oiek. Etsi bear luke. ¡Iñor ill ote da! Ta auek dira gizon gordiñak, auek geroko ezeren beldurrik ez dutenak, ta auek eriotz batek purrukatu ta buruik altxa eziñik gelditzen diranak.

PEDRO Badakizu, nola... eztuten ezer sinisten.

FAUSTINO Sinistuko ez baluteke ez lirake orrela izango. Ukatzen erraza da, bañan ez barrendik ixil-ixillik datozen galdera setatsuari erantzuten.

PEDRO Ez bai dira ixiltzen.

FAUSTINO ¡Antonio nun da?

PEDRO Or barrenan. Enrike'ren gelan agian, geienetan an da ta.

FAUSTINO Ez dakit ots egin, edo dakartena zuri esan.

PEDRO Entzungo dizut ta nik egin nezakena bada, agindu.

FAUSTINO Eskarrik asko. Jauregi'k bialtzen nau.

PEDRO Badakit zertara.

FAUSTINO Illa gaur bukatzen da, ta, nola iru idatzi egiñarren ez dion erantzun, jakin nai luke zer asmo daukan.

PEDRO Guri ez digu esan nai.

FAUSTINO ¡Galdetu diozute?

PEDRO Egun auetan guzietan aitatu diogu. Aiztian, azkenengo bere emaztearekin izan duen errieta, orregatik zan.

FAUSTINO ¡Ta zer dio?

PEDRO Enrike'rentzat ez bada, beste iñorentzat ez dula erosiko.

FAUSTINO Zorokeria da ori.

PEDRO Ez degu ba orretatik ateratzen.

FAUSTINO ¡Ta agiritzat jarritako bost milla duroak?

PEDRO Geiago balio zituela bere semeak, eta galdu duela.

FAUSTINO Eman deizula zuri bere eskubidea, ta zuk osa zazu gañeako dirua. ¡Ez ote dezu arkituko?

PEDRO Orain erraz. Nereak bakarrik dira bere ondorengoak. Bañan etxean izan da, besteri eskatzea ez da itxura onekoa. Esaiozu zuk. Zuri entzungo dizu. Zurekin jardunean ariarren, geienetan zure esana egiten du. Itz egiozu.

FAUSTINO Ez nekan gogo aundirik. Gertaera talalgarri ura ezkerro ez det ikusi. ¡Nere illoba nola tartean baizan! ¡Ta gajuak egun onak daramazki! Etzuen senartzako nai; gaur ere, uste det, ez lukela naiko, bañan ala ere, bizia opa lioke berari ontasuna ekartzearren.

PEDRO Bai, Isabel'ek ala esan dit.

FAUSTINO Len baño adiskideagoak dirala uste det bi lagunak...

PEDRO ¡Nai dezu aitari ots egitea?

FAUSTINO Bai, ots egiozu. Noiz edo noiz ikusi bearra naiz ta gaur izango da.

LAUGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Isabel

ISABEL Barkatu Faustino. Beste baten aurrera ez nintzan etorriko, bañan zuretzako ez dago etxe onetan ixilpeko gauzarik. Kepa, ama badijoa... Eztu geigo une batean ere egon nai, bañan... eztu gure etxera etorri nai... bakarrik juaan nai du.

PEDRO ¡Nora?

ISABEL Ez dakit. Gure etxera etorri ezkerro gorroto aundiagoa artuko liokela bere senarrak, ta ez berari bakarrik, baizik guri ere bai, ta ez du iñola ere besteren kaltegarri izan nai.

FAUSTINO ¡Tamalgarria! bañan arrazoi du.

PEDRO (*Bizi*). ¡Ta zer zaigu gizon orren gorroto ta asmo txarra gatik? ¡Len ere ez al da al duen kalte guzia egiten saiatzen? ¡Zer geiago lezake?

ISABEL Badakizu amak ez dula ezer egingo senarraren kaltez.

FAUSTINO ¡Joxepa gajua! Ori bere senarrarentzat ta danentzat izan danarekin...

ISABEL Zabiltz bada azkar, badijoa ta.

FAUSTINO Ez du juaan bear. Bere etxetik ez du irten bear, iñola ere. (*Pedro'ri*) Ots egiozu aitari, ta etorri bitartean amaren gana noa.

ISABEL Guazen, bai. (*Irurok atze aldera. Agertuko da Antonio atean*) Ez dezu zer ots egiñik. Ara non dan.

FAUSTINO Zuazte ama gana, ta esaiozute bereala naizela berarekin. (*Irten Pedro ta Isabel. Antonio dijuazenari begira; gero Faustino'ri jaramonik egin gabe sartuta eseri*).

BOSTGARREN AGERRALDIA

Faustino ta Antonio

- FAUSTINO ¡Antonio!
- ANTONIO ¿Zer? (*Oso labur*)
- FAUSTINO Irenegana etorri nak.
- ANTONIO Neregana, ta or abil etxean diran guziakin batera ta bestera.
- FAUSTINO Lengo eran.
- ANTONIO Etziok orain lengo konturik.
- FAUSTINO Ikusten diat. Zeon alkarganako maitasuna ta atsegiña itzali dala. Arpegi illunak ta negarrez estaliak ikusten dizkiat.
- ANTONIO Ekarri nazak Enrike ta danok alaituko gaituk.
- FAUSTINO ¡Enrike!... (*Ezinezko gauza dala agertu naian*)
- ANTONIO Enrike bai, Enrike, ura zalako etxe guzia altxa ta poztutzen zuena.
- FAUSTINO (*Arrituta*). ¿Zer egiten zikan arrek bere etxearen alde? ¿Bere senide ta gurasoen alde?
- ANTONIO Ura ukan nere bizia.
- FAUSTINO A! Ori beste gauzik dek... Aren begietatik bakarrik ikusten ukala, egia dek... orregatik orren gaizki azi ukan.
- ANTONIO Gezurra diok!
- FAUSTINO (*Poliki, poliki*) Gaizki azi... barka nazak... ta aur gaizki azi batek geienetan, gurasoaren ondarena ekartzen dik... Iri, negarra ekarri dik. (*Andoni'k ezpañak estutu ta burua makurtu*)
- ANTONIO ¡Aundia!
- FAUSTINO ¿Zer egiten dek alaitzeko?... Begira zak ire ingurura ta ikusiko dek emazte on bat, iñok ezdun bezelako emazte bat, iri on nola egin asmatu eziñik; alaba bat, gutxi diraden bezelakoa, bere gaztetasuna aztu, ta bere senar ta aurtxoak naikoa ez ditula, beti bere aita ta amaren begietara begira; zeon nairik txikienak, asmatu naian, bereala betetzeko.
- Ta i... entzungor, zeta txarrakin, goikoz bera gauza danak artzen ditukala, emakume errukarri oieri une bateko pakea ematen ez diotekala...
- ANTONIO ¿Nik e?... Berak bai ez bazekitek ni sututzeko zer egin.
- FAUSTINO Uste txarrak.
- ANTONIO ¿Usteak? Bazirudik Enrike'ren eriotzak poztu egin ditula.
- FAUSTINO Etzakela ori esan.
- ANTONIO Zergatik ari dituk ba beti aztuarazi naian.
- FAUSTINO Arrazoi ditek. Egongo aiz ba beti, ta beti, jardun berakin burua zoratzen. Egun talmagarri ura aldentzen ari dek. Berak ekarritako oñaze zorrotza barentzen ari dek. Ez dezagun ba,

gertatutakoa beti, ta beti, gogoraturik, zauria berritu. Iñork
aña miñ nik artu nikan...

ANTONIO

Esanak.

FAUSTINO

Nik, eta nere etxeko guziak.

ANTONIO

Bai, Maritxu'k.

FAUSTINO

Maritxu'k bai. Ta agian i baño geigo alegintzen dek
Enrike'ren on bila.

ANTONIO

Il da gero... salda bero.

FAUSTINO

Ilda gero, Jaungoikoaren eskuetara juan danean ta bere
gogoa...

ANTONIO

(*Asarre altxiaz*) Jaungoikoa? Ixo!... Ez nakela aitatu. Baldin
bada, ta esaten dezuten almena badu, petral ona, seme
bakarra aita bateri kentzen diona. ¡Atzaparretan baneuka!

FAUSTINO

Bereetan bai, bagioitzik gu... ta ire semea... ta ondo irtentzeko
emakumeak, batez ere gure etxeetan diran emakumeak,
egokiak dituk. Biartu, ta biurtuko ditek, esate batera,
Jaunaren asmo bera ire semearen alde.

ANTONIO

Berriketak!

FAUSTINO

Iretzat bai. (*Ixil aldi bat*)

ANTONIO

¿Ta ontara etorri al aiz?

FAUSTINO

Ontara, ta beste geiagora ere bai... Jauregi'k iru idatzi egin
dizkik.

ANTONIO

Ta etzioat erantzun.

FAUSTINO

Gaur dek azkenengo eguna. (*Dana ez tiro ta geldi*)

ANTONIO

Bazekiat.

FAUSTINO

Zai ziok.

ANTONIO

Alperrik, ez nak juango.

FAUSTINO

¿Ta jarritakoa?... ¿Galdutzat eman nai dek?

ANTONIO

Enrike ekartzen ez banak bai.

FAUSTINO

Enrike ezik geigo ere badituk. Pedro gizon on bat dek. Erosi
akiok.

ANTONIO

Ez.

FAUSTINO

Eman akiok ba ik daukaken eskubidea.

ANTONIO

¿Ta gañeako dirua?

FAUSTINO

Arkituko dik.

ANTONIO

(*Sutsu ta asarre bizia agertuaz*) ¡Len ez ta orain bai! ¡Sumatzen
diat! Enrike il, ta berak bakarrik dituk nere ondorengoak...
¡Esan nazak ez dirala ura illarekin poztu!

FAUSTINO

Orain ere txarrera jo dek. Lotsatzen ez aiz ire odolekoen
kaltez beti onela itz egiten? Pedro alde batera utzita, bear dan
gizona izanarren, ez dakak Isabel, ire odolekoa, ta ez dizkik
bere sabelean sortu, ta bere bularrez azi, ire billobak diran
bere iru aurtxoak? Ara or nun ditukan ire ondorengoak, ire

etxe au alaitu lezatekenak, ire zartzaroa poztu lezatekenak... ez akiotekela etxeko ta biotzeko ateak itxi.

(Antonio oldezkor ta itun eseritzen da. Faustino juaten da, ta atsean norbaiteri etortzeko esaten dio eskuakin. Agertzen da Antontxu, Faustino'k ixillik itz egiten dio ta juaten da. Antontxu poliki-poliki, etorriko da aitonaren aurrera. Onek nabaitzaren dunean norbait, burua altxatzen du, ta billoba ikusirik zoro antzera, bañan gozoki eldu ta ekiten dio)

SEIGARREN AGERRALDIA

Antonio ta Antontxu

- ANTONIO ¡Antontxu!... ¡Antontxu!... ¡nere billoba maitea! Atorkit... Atorkit... *(belaun gañean jarriaz ta musutuaz)*.
Mutil ederra aiz... Begiak, Enrike'k bezin ederrak dituk... illia ere bai... ik maiteko nak asko, asko... Enrike maite ukan bezela... esan nazak...
- ANTONTXU Bai, aitona.
- ANTONIO Bai, ta nik ere bai... biyok izango gaituk laguntxoak... nik esango dizkiat kontutxoak... ik ere bai... neri... iriak Antontxu... *(Begira-begira egon ta bat-batean)* Enrike non dan ik jakingo dek...
- ANTONTXU Bai aitona.
- ANTONIO ¡Nun? *(Lei aundiarekin)*
- ANTONTXU Zeruan.
- ANTONIO ¡Nola dakik, aingerutxoa?
- ANTONTXU Onak zerura juaten diralako, ta osaba oso ona zan.
- ANTONIO *(Marruaka negarrezko poza dariola)* ¡A! Antontxu, Antontxu, i aiz egia esaten dekana, ik nere biotzeko zauria sendatzen diak. Antontxu nere... ik maite nak...

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Lengoak eta Isabel

- ISABEL *(Oso larri ta atzetik oju egiñaz)* Andoni, ator onera... ¿aitonari zer egin diok? *(Isabel'ek atera nai dio aurra, bañan aitonak euzten dio)*
- ANTONIO ¿Zer, atera egin nai den? Nere billoba, nere odola daraman billoba, atera egin nai den? ¡Ez diñat emango!

ISABEL *(Ezin ulerturik)* Ez aita... zuk nai badezu zurekin izango da... Okerren bat egin zizula uste nuen.

ANTONIO Okerra ez, biotza alaitu zian. Enrike non dan bazekin.

ISABEL *¿Enrike? (larri)*

ANTONIO Bai.

ISABEL *(Ikaraz, jakin naian)* ¿Non da biotza?

ANTONTXU Zeruan.

ANTONIO *¿Entzun den? (alai)*

ISABEL *(Alaituaz)* Bai aita, ta ez badago ere ez du luzaro jarraituko dagon lekuan. Alegintzen gera, eztala arras galdu ziur bagera. Arren eriotz larriko itz labor aiek, siñestun batenak ziran. Orregatik ez degu geiegi estutu bear. Bizi geradenok alegindu gaitezen aren alde, bañan baita ere gu geroni obeto izaten. Ondo bizi gindezke.

ANTONIO Ni Antontxu'rekin. Onera ekarri bear den.

ISABEL Ta ni berarekin, ez baida egoki ama bati aurra kentzea.

ANTONIO Ez diñat kenduko. Iretzako lekua izango den etxean.

ISABEL *(Poza ta itxaropenez betiaz)* ¿Ta nere senarrarentzat?... ¿ta beste nere aurtxoentzat?... Esaidazu baietz aita... ain ona zeran aita... izerdi ta neke guziak gugatik, pozik, artzen zenituen aita.. ni ainbeste maite ninduzun, aita... neretzat, dana gutxi arkitzen zenuen, aita, naiz orain gogor ta zeken agertu, barrenen izan dezun, ta daukazun maitasuna ezkutatu naian... *(Oso lastanki)*

Zure gogozko etzan ezkontzarekin naigabetu zindutan, ezereztu nitulako zuk nere maitasunean zerabiltzkizun asmo ta ametsak, bañan... zoriontsu nai baninduzun zoriontsu naiz... Senar on bat det. ¡Bazenekizu zenbat maite nauen, ta zenbat maite dituen bere aurtxoak!...

ANTONIO *¿Ta ni? (Seken)*

ISABEL Etzaitu esagutzen. Beti gogor artu dezu, ta nola sinistuko du guraso biotz aundiko bat zerala?

ANTONIO Gogorra izan naiz, egia.

ISABEL Ekar zazu onera, agertu zaitez len ziñan bezela, ta ikusiko dezu Pedro nor dan. *(Atzeneko itz auek esanaz belaunikatu edo eroriko da aitaren oñetan bere eskuari eutsiaz)*. Nere senarrarekin... nere aurtxoarekin... nere amarekin... nere aitarekin... danok... batean... ¿ezin gindezke bizi?

ANTONIO Altxa Isabel, altxa... Ezan akion Pedro'ri etortzeko. *(Isabel altxa ta poz aundiz atzera jua da ots egiten du)*

ISABEL Pedro... ama... atozte, atozte... *(Bitarte onetan Antonio maira jua ta aterako du Jauregi'rekin egintzuen eros ageria)*

ZORTZIGARREN AGERRALDIA
Lengoak, Josefina, Pedro ta Faustino

ISABEL Pedro, aitag zurekin itz egin nai du.
PEDRO Aita.
ANTONIO To, Pedro. Ua Jauregi'ren gana ta esan akiok bere landola iretzako dala. Idazkia ire izenean egiteko...
PEDRO Eskarrik asko, aita.
ANTONIO Ta diruakin juango naizela.
PEDRO Bereala ordainduko dizkitzut.
ANTONIO Ez, irea dek... ire emaztearena... ire aurtxoena... emen biziko geran guziena.
FAUSTINO Ezpail estu ta esku itxi agertzen itzan, ire barren ona ezkutatu naian. Batak eta besteak iriki itzik; etxeko atea zabaldu, ta datozela auen aurtxoak irri ta parrez, zarataz ta oiuz dana betetzera.
ISABEL (*Eskuitan Isabel ta Pedro, erdian Faustino, ezkerretan Antonio ta Josefina. Antontxu Antoniok daka*) ¡Bai, dana alaitzera!
PEDRO ¡Amets dagit!
ISABEL Orain ezagutuko dezu nor dan gure aita.
JOSEFINA Antonio... zifana, gaur berriro agertzen zera.
ANTONIO Joxepa. ¿Uste dezu berriztu genezakela gure purrukatutako bizi zoriontsua?
JOSEFINA Eramankorragoa egin bai beñepin.
FAUSTINO Zoriontsua ere bai.
ANTONIO Gaur alaitu nazute. Illunpean neukan oroia urraturik argi berria datorkit barren dana argitzera... Ez al da len bezela adur txarrekua izango! (*Ikara agertuaz*)
ISABEL Ez aita, oraingoa "Goi argia da".

AMAYA